# HIRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA ERALDATZAILEA ESPAINIAKO HEZKUNTZA-SISTEMAN

HEZKUNTZA ERALDATZAILEAREN ETA HIRITARTASUN GLOBALAREN ALDEKO MUGIMENDUA



alboan ONG·JESUITA·FUNDAZIOA
entreculturas ONG·JESUITA
InteRed por una educación transformadora
OXFAM Intermón

FINANTZAKETA:
MINISTERIO DE ASUNTOS EXTERIORES, UNIÓN EUROPEA Y COOPERACIÓN
aecid
Cooperación Española

Txertatzeko eta jorratzeko gomendioak

Argitalpen hau Santiago de Compostelako Unibertsitaeak AECID 18 - CO1- 001208 “Hiritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen alde, GJHak betetzearekin konprometituta” hitzarmenaren esparruan egindako ikerketa baten emaitzetan oinarritzen da; ikerketa Sailvana Longueira Matos ikerlariak koordinatu du.

**EGILEA:**

HIRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA ERALDATZAILEAREN ALDEKO MUGIMENDUA:
Fabiola Fares Sade (Koord.) - Alboan Fundazioa
Carolina Del Río Usábel - Alboan Fundazioa
Yénifer López Ramos - Entreculturas Fundazioa - Fe y Alegría
Marta Martín Pastor - InteRed
Elisabet Santpere Baro - Oxfam Intermón

**MAKETAZIOA:**
Julia Pérez - juliaperez.es

Argitalpenaren edukia Hiritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen aldeko Mugimendua osatzen duten erakundeen erantzukizun esklusiboa da, eta ez du halabeharrez islatzen AECID erakundearen iritzia.

Hiritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailea Espainiako hezkuntza-sistema formalean: Sartu eta jorratzeko gomendioak.

ISBN: 978-84-09-41327-0

2022ko maiatza

FINANTZAKETA:

MINISTERIO DE ASUNTOS EXTERIORES, UNIÓN EUROPEA Y COOPERACIÓN · aecid · Cooperación Española

alboan ONG · JESUITA · FUNDAZIOA · entreculturas ONG · JESUITA · InteRed por una educación transformadora · OXFAM Intermón

# AURKIBIDEA

AURKEZPENA.......... 5

SARRERA.......... 6

## IKERKETAREN ESPARRUA 8

IKERKETAREN XEDEA ETA HELBURUAK.......... 9

GALDERAK ETA IKERKETAREN HELBURUAK .......... 10

IKERKETAREN METODOLOGIA.......... 11

IKERKETAREN ESTALDURA.......... 12

## HIRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA ERALDATZAILEA IKASTETXEETAN 14

IKASTETXEEN TESTUINGURUA .......... 15

ANALISIAREN ORIENTAZIO-GALDERAK .......... 17

HGHE LANTZEN DUTEN IKASTETXEEN ETA PROPOSAMENEAN INPLIKATUTAKO IRAKASLEEN EZAUGARRIAK.......... 18

OSASUN-LARRIALDIA .......... 27

ONDORIOAK.......... 28

GOMENDIOAK.......... 31

## HIRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA ERALDATZAILEA IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZAN 35

ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN TESTUINGURUA .......... 36

ANALISIAREN ORIENTAZIO-GALDERAK .......... 38

IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZA .......... 39

OSASUN-LARRIALDIA .......... 46

ONDORIOAK .......... 47

## HIRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA ERALDATZAILEA IRAKASLEEN HASIERAKO PRESTAKUNTZAN 51

IRAKASLEEN HASIERAKO PRESTAKUNTZAREN TESTUINGURUA .......... 52

ANALISIAREN ORIENTAZIO-GALDERAK .......... 54

HIRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA ERALDATZAILEAREN JAKINTZA ETA KONPETENTZIAK IRAKASLEEN HASIERAKO PRESTAKUNTZAREN IKASKETA-PLANETAN .......... 55

ONDORIOAK .......... 64

GOMENDIOAK .......... 65

.......... 69

## ERANSKINA 69

I. IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZA .......... 69

II. IRAKASLEEN HASIERAKO PRESTAKUNTZA .......... 130

# AURKEZPENA

Dokumentu hau Hiritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen aldeko Mugimenduak Santiago de Compostelako Unibertsitateari agindutako ikerketari dagokion txostena da, "Hiritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen alde, GJHak betetzearekin konprometituta" hitzarmenaren esparruan. Hitzarmena Alboan, Entreculturas, InteRed eta Oxfam Intermón GGKE-ek zuzendu dute, eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziak (AECID) finantzatu du.

> **Argitalpen honen asmoa da ikerketan ateratako ondorioen eta analisiaren elementu esanguratsuenak azpimarratzea, eta azken helburua da gomendioak ematea Hiritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen ikuspegiak sartzeko hezkuntza-sistema formalean. Gomendio horiek ekarpenak egin nahi dizkio hezkuntza-arloan erantzukizunak dituzten eragileen arteko sektore arteko elkarrizketari, bai estatu-mailan eta bai erkidego-mailan.**

Lan hau ez litzateke posible izango hainbat eragilek parte hartu ezean; izan ere, eskuzabaltasunez, Hiritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea Espainiako hezkuntza-sisteman sartzeari buruzko informazioa eman dute. Eskerrak eman nahi dizkiegu, halaber, Hiritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen aldeko Mugimendua osatzen duten sareetako ikastetxeetako irakasleei eta zuzendaritza-taldeei: Edukalboan Komunitatea (Alboan), Irakasleen Sare Solidarioa (Entreculturas), Garapenerako eta Hiritartasun Globalerako Ikastetxeen Sare Eraldatzailea (InteRed) eta Hiritartasun Globalerako Hezitzaileen Sarea (Oxfam Intermón); eskerrik asko, halaber, parte hartu duten unibertsitate eta administrazio publikoei. Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiogu Santiago de Compostelako Unibertsitateko TeXe taldeko ikerlari-taldeari; izan ere, 2020an zehar bizitzako oztopoei aurre eginez, aurrera atera dute ikerketa.

Eskerrik asko pertsona eta erakunde guztiei ziurgabetasun-garai honetako lankidetzagatik. Zuen laguntzarik gabe, lan hau ez zen posible izango.

# SARRERA

Hiritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen aldeko Mugimendua Hiritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea (aurrerantzean, HGHE) hezkuntza formalean sartzea sustatuko duten prozesuak bultatzeko garatu den ekimen bat da; izan ere, haren ikuspegi eta praktikak garrantzitsuak dira hiritartasun kritikoa, arduratsua eta mundu bidezkoagoa, zuzenagoa eta pertsona eta ingurumenarekiko errespetutsua eraikitzeko konpromisoa duena sustatzeko, bai tokiko mailan eta bai maila globalean.

2015ean 2030 Agenda onetsi zenean, aurrekaririk gabeko konpromiso global bat sortu zen HGHEarekiko. Une horretatik aurrera, herrialde guztiek bere gain hartu dute GJHak betetzeko beharrezko mekanismoak aktibatzeko ardura. 4. GJHaren ("Kalitatezko hezkuntza") esparruan, 4.7 xedeak honako hau eskatzen du: "garapen jasangarria, besteak beste garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarrietarako, giza eskubideetarako, genero-berdintasunerako, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzeko, munduko herritartasunerako, kultura-aniztasuna baloratzeko eta kulturak garapen jasangarriari laguntzeko, hezkuntzaren bidez[1]". Hezkuntza-komunitateko kide gisa, gure erantzukizuna baliatu nahi eta behar dugu planetarentzat eta pertsonentzat garapen jasangarria sustatzeko orduan, konpromiso honekin bat.

"Hiritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailea Espainiako hezkuntza-sisteman: Sartu eta jorratzeko gomendioak" izeneko txostena Hiritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen aldeko Mugimenduak Santiago de Compostelako Unibertsitateari agindutako ikerketaren (Terceira Xeneración ikerketa-taldearen bitartez) emaitzetan oinarritzen da, ulertzeko nola egin ditzaketen ekarpenak hezkuntza formalaren arloan garatutako eta HGHEan oinarritutako prozesuek ikuspegi horiek Espainiako hezkuntza-sisteman sartzeko.

Lortutako ebidentziei begira, txosten honek HGHE irakasleen hasierako eta etengabeko hezkuntzan eta eskola-arloan sartzea ahalbidetuko luketen analisiaren, ondorioen eta gomendioei elementu azpimarragarriak aurkezten ditu. Beraz, lanak GJHen 4.7 xedea betetzen lagundu nahi du Espainian.

Espero dugu dokumentu hau baliagarria izatea elkarrizketa eta hausnarketarako bideak irekitzeko hezkuntza formalarekin lotutako eragileen artean.

1 https://es.unesco.org/creativity/files/unesco-avanza-agenda-2030-para-desarrollo-sostenible.

# GOMENDIOAK

1. HGHE sartzea ikastetxeetako kudeaketa- eta programazio-prozesuetan

2. HGHE sartzera bideratutako irakaskuntza-konpetentzien garapenaren alde egitea

3. Curriculuma diseinatzeko eta HGHE sartzeko aukerak baliatzea

4. Erakunde sozial eta ikastetxeen arteko harremana eta beste eragile batzuekiko artikulazioa indartzea

5. HGHEaren funtsezko ikuspegi eta konpetentzietan sakontzea irakasleen profesionalizazio-prozesuetan

6. HGHE sartzea hezkuntza-politikaren ezarpenean eta prozesuen kudeaketan

7. HGHE modu esplizituan sartzea ikasketa-planetan eta programazioetan

8. HGHE sartzearen alde egingo duten ikuspegi eta metodologien erabilera sustatzea

9. Unibertsitate eta GGKE-en arteko harremanak sustatzea, HGHE indartzeko praktikaren bidez

10. Unibertsitateko irakasleen etengabeko prestakuntza eta HGHEarekin lotutako esperientzien trukea sustatzea

# IKERKETAREN ESPARRUA

# IKERKETAREN XEDEA ETA HELBURUAK



HGHE etengabe eboluzionatzen ari den kontzeptua da, eta hainbat izendapen homologoren, termino osagarriren eta gutxi gorabeherako esanahi eta interpretazioren gainean dago eraikita; horiek aukera ematen dute egungo erronka globalei erantzuteko hezkuntzaren bidez.

Dokumentuak oinarritzat duen ikerketaren xedea da ezagutza- eta jarduketa-esparru bat sortzea, HGHE sartzeko hezkuntza formalean, eta HGHEaren garapen-maila ulertzea ahalbidetzeko ikastetxeetan. Horrez gain, etorkizuneko esku-hartzeetan erabakiak hartu nahi dira, hezkuntzaren izaera eraldatzailea indartuko duten gomendioen bidez.

# GALDERAK ETA IKERKETAREN HELBURUAK

| 01. GALDERA | 02. GALDERA | 03. GALDERA |
|---|---|---|
| Zein da HGHEaren garapen-maila Espainiako hezkuntza-sisteman? | Hezkuntza-administrazio publikoek beharrezko baldintzak ematen dituzte HGHEaren printzipioak garatzeko eta erronka global nagusiak jorratzeko hezkuntza-sistemaren bidez? | Zein erronka ditu aurrean HGHEak Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aitortu eta orokortu dezaten? |

**OE1**

HGHEaren garapen-maila ezagutzea haren ezarpenean ibilbide luzea duten ikastetxeetan, oztopoak eta “palanka-elementuak” identifikatuz.

**OE2**

Hezkuntza-administrazioek HGHEak hezkuntza-sisteman izan duen garapenean duten rola aztertzea, araudi-esparrua sortzeko inplikazioa, irakasleen etengabeko prestakuntza eta ikastetxeetan hezkuntza-berrikuntzaren sustapena barne.

**OE3**

HGHEaren aukeretara eta sartze-mailara hurbiltzea Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen hasierako prestakuntzan.

**OE4**

Intsumoak ematea eztabaida pedagogikoari eta HGHEari buruzko ezagutzak sortzeari, arlo akademikoan, erakunde sozialetan eta hezkuntza-sisteman.

# IKERKETAREN METODOLOGIA

Ikerketaren analisi deskribatzailea kasuen azterketaren bidez garatu zen, ikuspegi kualitatiboarekin, hori jo baitzen egokitzat pertsona eta erakunde partaideek bizitzen dituzten hezkuntza-esperientziei ematen dieten esanahia ulertzeko [2] .

Analisia egiteko, eragile hauek kontsultatu ziren:

## IKASTETXEAK

Praktikak HGHEan modu egonkorrean ainguratuta dituzten ikastetxeen esperientzien analisia.

Elkarrizketak irakasleei eta zuzendaritza-taldeei.

## ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

Autonomia-erkidego bakoitzak sustatutako etengabeko prestakuntzarako proposamenak aztertzea.

Autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioei elkarrizketak egitea curriculuma zehazten, irakasleen etengabeko prestakuntzan eta hezkuntza-berrikuntzaren sustapenean duten inplikazioari buruz.

## UNIBERTSITATEAK

Lehen Hezkuntzako Maisu eta Maistren Graduko eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza Masterreko titulazioen ikasketa-planak aztertzea.

Elkarrizketak egitea HGHEaren ikuspegiarekin hezkuntza-praktikak egiten dituzten unibertsitateko irakasleei.

Elkarrizketa egitea unibertsitateko lankidetza-unitateetako langileei.

## ESTATUKO ETA ERKIDEGOKO ARAUDIA

Oinarrizko curriculum-diseinua aztertzea HGHEaren curriculumeko presentzian oinarrituta.

[2] Kemmis eta McTaggart, 1988; Goezt eta Lecompte, 1988.

# IKERKETAREN ESTALDURA

Ikerketa herrialdeko 9 autonomia-erkidegotan egin zen, eta parte hartu zuten ikastetxeek, unibertsitateek eta administrazio publikoek. Irudiak laginaren banaketa irudikatzen du hainbat kokapenetan:




1 ANDALUZIA

2 GAZTELA ETA LEON

3 KATALUNIA

4 MADRILGO ERKIDEGOA

5 NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

6 VALENTZIAKO ERKIDEGOA

7 EUSKADI

8 EXTREMADURA

9 MURTZIA

# AUTONOMIA-ERKIDEGO BAKOITZEKO ERAGILE PARTAIDEAK

## 1 ANDALUZIA
Universidad de Loyola
Universidad de Málaga
Andaluziako Junta
CEP Angel Campano Florido (Ginés, Sevilla)
Colegio San Estanislao de Kostka
IES Murillo
SAFA Blanca Paloma

## 2 GAZTELA ETA LEON
Universidad de Valladolid
Gaztela eta Leoneko Junta
Colegio Niño Jesús - Burgos.
IES Diego Tadeo González (Ciudad Rodrigo)
Santa Mª la Nueva y San José Artesano

## 3 KATALUNIA
Universidad Autónoma de Barcelona
Consorci d' Educació de Barcelona
CEIP La Jota
IES JAUME MIMÓ de Cerdanyola del Vallès

## 4 MADRILGO ERKIDEGOA
Universidad Autónoma de Madrid
Centro de Formación Padre Piquer
Colegio Divino Corazón
Colegio Gamo Diana

## 5 NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Nafarroako Gobernua
Colegio Hijas de Jesús
Colegio Jesuitas Pamplona
IES Eunate
IES Sancho III el Mayor, Tafalla

## 6 VALENTZIAKO ERKIDEGOA
Universitat de València
Valentziako Generalitatea
Colegio El Armelar
Colegio Niño Jesús
IES Jaume I
IES Vicent Andrés Estellés

## 7 EUSKADI
Euskal Herriko Unibersitatea
Mondragon Unibertsitatea
Eusko Jaurlaritza
Areatza HLH
Berrio Otxoa Ikastetxea
Egibide Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako ikastetxea

## 8 EXTREMADURA
Universidad de Extremadura
Badajozeko Aldundia
Colegio Nuestra Sra de la Asunción
IES Albarregas
IES Virgen de Gracia

## 9 MURTZIA
Universidad de Murcia
Colegio Herma
IES Alcántara

# HIRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA ERALDATZAILEA IKASTETXEETAN

# IKASTETXEEN TESTUINGURUA

Ikastetxeen rola funtsezkoa da hezkuntza-eraldaketen sustapenean. Garrantzi horren harira, beharrezkoa da ulertzea nola sartzen den HGHE maila instituzionalean, oro har. Horretarako, beharrezkoa da sakon ezagutzea HGHE eguneroko bizitzan sartu duten ikastetxeen kasuak; izan ere, aukera emango du identifikatzeko zeintzuk diren sartze hori eraginkor egiteko eta HGHEaren ikuspegitik orientatzeko baldintzak.

**Ikerketa-prozesuan 77 pertsonak hartu zuten parte, 28 ikastetxetako 46 elkarrizketaren bidez; horietatik 15 ikastetxe itunduak dira, eta 13 publikoak, 9 autonomia-erkidegotan banatuta: Andaluzia, Gaztela eta Leon, Katalunia, Madrilgo Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea, Valentziako Erkidegoa, Euskadi, Extremadura eta Murtzia.**

77 PERTSONA

46 ELKARRIZKETA

28 IKASTETXE

9 AUTONOMIA-ERKIDEGO

Lagina titulartasun heterogeneoko ikastetxeek osatzen dute, askotariko hezkuntza-mailekin (5 ikastetxe espezializatuta daude Lehen Hezkuntzan, 11 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta 12 bietan), tamainekin eta testuinguru sozioekonomikoekin, eta komunean dute HGHEaren esparruko jarduerak garatzeko esperientzia.

Egindako elkarrizketetan ikastetxeetako 18 zuzendaritza-taldetako 20 pertsonak hartu zuten parte (14 emakume eta 6 gizon): 5 ikasketa-buru, 3 ikasketa-koordinatzaile zuzendarien ordezkaritzan eta 10 zuzendari. Gainera, irakasleen 57 ordezkarik parte hartu zuten (37 emakume eta 20 gizon).

Lagina ikerketaren erakunde sustatzaileek proposatu zuten, lan-sareetan etengabe parte hartzen duten ikastetxe eta irakasleetatik abiatuta, edota noizbait lankidetzan aritu direnak prestakuntza-jardueraren batean. Parte hartzeko ezinbesteko baldintza zen ikastetxeak esperientzia izatea HGHEaren arloko jarduretan.

**Analisia honela antolatu da:**

01 IRAKASLEAK: INPLIKAZIO HANDIKO PROFILAK

02 HGHEaren ESPARRUKO HEZKUNTZA-JARDUERAK GARATZEA

03 HGHEaren LAN-ARLOAK IKASTETXEETAN

04 CURRICULUMA ETA HGHE

05 KANPOKO ERAKUNDEEKIKO HARREMANA



# ANALISIAREN ORIENTAZIO-GALDERAK

## 01. GALDERA

Zein ezaugarri dituzte ikastetxe horiek arrakastaz sartu ahal izateko Hiritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea?

## 02. GALDERA

Zerk laguntzen die ikastetxeei hezkuntza eraldatzailearen eta hiritartasun globalaren esparruko hezkuntza-praktikak garatzen?



# HGHE LANTZEN DUTEN IKASTETXEEN ETA PROPOSAMENEAN INPLIKATUTAKO IRAKASLEEN EZAUGARRIAK

Elkarrizketatutako ikastetxeen HGHEaren ekintzak garatzen dituzte, eta euren Hezkuntza Proiektuan (HP) eta gehien bat Ikasgelako Programazio Orokorrean (IPO) sartzen dituzte. Ikastetxe itunduek erreferentzia egiten diote ere Plan Estrategikoan sartzeari.

Atalaren sarreran ikusi den moduan, HGHE lantzen duten ikastetxeak askotarikoak eta heterogeneoak dira. Baina, titulartasuna, tamaina eta hezkuntza-maila deskribatzen dituzten datu horietatik harago, azpimarragarria da 11 ikastetxe auzo edo eremu sozioekonomiko konplexuetan daudela, zaurgarritasun-egoeran dauden familiekin.

Gainera, elkarrizketatutako 8 ikastetxe aldaketa-prozesuak eta hobetu eta eraldatzera bideratutako hezkuntza-proposamen berriak eraikitzeko prozesuak ari dira garatzen, begirada kritikoetatik eta parte-hartze prozesuetatik abiatuta.

Kasu guztietan, zuzendaritza-taldeak aukerak sortzen dituzten eragile dinamizatzaileak dira. Zuzendaritza-taldeek prozesuak babestu eta sustatzen dituzte (espazioak ematea, aitorpen-sistemak, denbora-tarteak, planifikazioan sartzea), erantzukizunak antolatu eta banatzen dituzte eta, azken finean, HGHEaren prozesu eta jarduerak ahalbidetzen dituzte ikastetxean.

Ikastetxeen ezaugarritzean nabarmendu beharreko elementu bat klaustroaren hautaketa- eta egonkortasun-prozesuetan dago, eta horiek lagungarriak izan daitezke proiektuak garatu eta finkatzeko. Alde horretatik, desberdintasunak daude ikastetxearen titulartasunari begira:

## IKASTETXE PUBLIKOAK

**Ikastetxe publikoek** uste dute ekintzak finkatu eta haiekin jarraitzeko aukerak murriztu dituztela, langile-plantillen ezegonkortasunaren eta behin-behineko izaeraren ondorioz. Gainera, ikasturte batetik besterako etengabeko aldaketek epe ertaineko prozesuen proiekzioa, prestakuntzaren optimizazioa eta ikastetxearen hezkuntza-proiektuari ekitea oztopatzen dute, baita behin-behineko irakasleen inplikazioa ere.

## IKASTETXE ITUNDUAK

**Ikastetxe itunduek** parte-hartze prozesuetako esperientziak eta elkarrekin lan egiteko gaitasuna baloratzen dituzte irakasleen artean. Ikastetxe horiek kontratatzeko gaitasunari eta irakasle-taldeen egonkortasunari esker, errazagoa da berrikuntza-prozesuak abian jartzea. Aurrekoarekin lotutako beste faktore positibo bat egitura propioak sortzeko gaitasuna da. Ohikoak dira ekintza edo dimentsio sozialeko arduradunak, baita interes-arloen araberako zuzendaritzak ere (justizia eta elkartasuna, jasangarritasuna, berdintasuna, etab.).



# IRAKASLEAK: INPLIKAZIO HANDIKO PROFILAK

Ikastetxeen barruan HGHEarekin inplikatutako irakasleen profilari dagokionez, azpimarragarria da elkarrizketan parte hartu duten irakasle askok esperientzia luzea dutela irakaskuntza, baina badaude ibilbidearen hasierako fasean sartu diren irakasleak ere. Irakaskuntza-funtziora sartzeko titulazioen jatorria, espezializazioko ezagutza-arloak eta ikasketa-planetan landutako materiak askotarikoak dira.

Elkarrizketetan zehar, irakasle guztiek inplikazio-maila handia erakutsi dute lanean, eta erreferentzia egiten diote lanbidearen bokazioari. Hainbat pertsonak bereganatu dituzte erantzukizun handiko lanpostuak ikastetxean (batzorde edo arloen koordinazioak, plan estrategikoen kudeaketa edo zuzendaritza-taldeak).

Irakasle horiek aitortu dute lotura pertsonala dutela HGHEarekin, eta bokazio soziala dute. Horrez gain, batzuek nazioarteko lankidetzan esperientzia izan dute tokian bertan. Guztiek profil aktiboa dute komunitatearekiko harremanetan, eta proaktiboak dira etengabeko prestakuntzan.

Irakasle askok arlo sozialeko kezka pertsonalekin lotzen dute HGHEarekiko atxikipena, eta askotan baita hirugarren sektoreko erakundeetako partaidetza eta militantziarekin ere. 8 irakaslek jaso dute nazioarteko lankidetzako prestakuntza, eta esperientziaren batean parte hartu dute tokian bertan.

Gainera, elkarrizketatutako irakasleen herenak gaur egun dauden ikastetxean edo aurreko batean dagoeneko abian jarri zituzten esperientzien bitartez hasi zuten HGHEarekiko lotura. Alternatibak bilatzeko ere egiten dute haien jardun profesionalean, eta erantzuna irakasle eta ikastetxeen sareetan topatzen dute, kanpoko erakundeekin batera.



# HGHEaren ESPARRUKO HEZKUNTZA-JARDUERAK GARATZEA

Aztertutako praktiketan, HGHEarekin lotutako jarduera sorta zabala identifikatu da (nahiz eta ez zaien beti horrela deitzen), izaera puntuala dutenetatik hasi eta hezkuntzako berrikuntza-proiektuetan integratzen direnetara arte; ikastetxean sartzen dira, eta azter daitezke hainbat aldagai erreferentzia gisa hartuta.

Lehenengoa ikastetxeko integrazio-maila da. Kasu guztiek sartu dute HGHE euren proiektuan, eta ikasturte bakoitzaren hezkuntza-prozesuen parte da. Batzuek ikastetxe osoa inplikatzen duten ekintza puntualak proposatzen dituzte (egun garrantzitsuak, astea edo jarduera tematikoak), eta horiek aukera ematen dute ikastetxeetan zeharkakotasun-dinamikak abiarazteko, partaide bakoitzean arrastoa uzteko eta talde-nortasuna indartzeko. Beste joera bat hainbat arlotako proposamenetan islatzen da, non irakasle bakoitzak edo talde txikiek ikasgelako lana ekimen partikular batekin lotzen duten. Azkenik, gutxi batzuek euren hezkuntza-prozesuetako aldaketa sakon eta konplexuekin lotu dute HGHE. Zehazki, identifikatutako ikastetxeek hezkidetza-plan bat edo berdintasun-plan bat dute, hau da, estrategia bat dute hezkidetza txertatzeko edo zeharkako genero-ikuspegia sartzeko eduki didaktikoetan eta barne-funtzionamenduan. Azken urteetan, autonomia-erkidego batzuetako legegintzak abian jarri ditu baliabideak ikastetxeetan mota horretako planak sustatzeko, eta horiek sustatu eta jarraipena egiteko arduradunak ere izendatu dituzte. Gainera, beste ikastetxe batzuetan, ingurumen-jasangarritasunarekin lotutako ekintzak garatzeko egitura espezifikoak hauteman dira, “ingurumen-batzorde” izenekoak.

Azken finean, jarduera horien garapenak lotura du ikastetxeak gaietan eta planifikazioan egitura-aldaketak egiteko duen gaitasunarekin.

Bigarren aldagaiak zerikusia du HGHEaren ikuspegi eta metodologiekin egindako jarduerek eskolako curriculumarekin duten loturarekin. Alde batetik, ikastetxe askok modu egonkor eta periodikoan egiten dute lan, ikastetxearen eta irakasleen laguntzarekin, baina irakastorduetatik eta ikasgelaren planifikaziotik kanpo[3] .

Beste ikastetxe batzuek jarduerak eta proiektuak proposatzen dituzte ikastaroan zehar, gutxi gorabehera denboran zehar, gai zehatzetan zentratuta, eta horietatik abiatuta irakasleen, ikasleen eta batzuetan komunitatearen zati bat inplikatzen da. Batzuek erakunde sozialen proiektu tematikoetan, berrikuntza-proiektuetan edo inguruko behar eta aukeren hautematean dute jatorria. Beste batzuk, berriz, gaietan, proiektu bidezko lanetan (ABP) edo Ikaskuntza eta Zerbitzuko ekimenetan (ApS)

3 Proposamen askok lotura dute Entreculturasen Gazteen Sare Solidario bat sortzearekin (8 ikastetxe). Ikasle boluntarioen taldeetan oinarritzen dira; irakasle-talde baten laguntza dute, eta egitura paralelo batean egiten dute lan, curriculum-garapenaren euskarri gisa.

daude sartuta. Ikastetxe batzuetan proiektu horiek garrantzi handiagoa dute, eta ikastetxe osoa inplikatu nahi dute[4] .

Ikastetxe batzuek erreferentzia egin diote ikasgelako lan nagusiari, planifikazioan erregistratu ez diren eta beraz ikusten ez diren ekimenak agerian jartzeko. Alde horretatik, elkarrekiko planifikazioaren falta sumatzen da, talde-lanaren eta komunikazioaren bidez.

Hirugarren aldagaia autonomia-maila da irakasleek jarduerak diseinatu eta ezartzeari dagokionez. Aldarrikapen argia daukate erabakiak hartzeari eta HGHEaren jarduerak planifikatzeari buruz, testuingurura egokituta, eta aldi berean irekita daude esku hartzeko proposamenei eta ikastetxeetatik kanpoko erakundeek prestatutako materialei begira.

Kontuan hartzeko laugarren aldagaia ikasleen inplikazio- eta autonomia-maila da HGHEaren jardueren garapenean. Hezkuntza-maila handienetan, ikasleei marjina handiagoa ematen zaie ekintzen diseinu eta ezarpenean. Inplikazio horrek barne hartzen ditu irakasleek antolatutako jardueretako parte-hartzea (kasu gehienetan), planifikatzea eta erabakiak hartzea.

Aztertu den beste kontu bat tokiko dimentsioaren eta globalaren arteko oreka da. Ikastetxe gehienek bi esferetako esku-hartzeak aktibatzen dituzte; hala ere, ekintzak gutxik bateratzen dituzte eta jartzen dute agerian lotura hori. Globala nazioartekotzearekin eta herrialde txiroetako esperientziekin identifikatzen da. Genero-berdintasunaren eta ingurumenaren gaiak ohikoak dira tokikoaren eta globalaren arteko oreka lortzeko.

Egindako analisian HGHEaren jarduera eta proiektu guzti horiek sartzeko behar handia hauteman da. Alde batetik, irakasleen arabera, nahiz eta ikastetxearen dokumentuetan sartzen diren, agerian jarri behar dira eta gehiago artikulatu behar dira elkarren artean. Gainera, horretarako konpromiso espezifikoak eskatzen dituzte. Horren harira, egindako ahaleginak aitortzea bilatzen dute, lorpen txikiak irabazteko: denbora-tarteak ordutegietan, biltzeko espazio fisiko bat edo ikastetxearen planifikazioan sartzea.

[4] 7 ikastetxe aldaketa sakonen prozesuan daude hezkuntza-proiektuan. 2 ikastetxek lortu dute talde-lana finkatzea, inplikazio sozialarekin. 9 ikastetxek erreferentzia egin diote Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzari (ABP). ApS aplikatzen duten 12 ikastetxeetatik 4k ikasle guztientzako nahitaezko gai edo metodologia gisa sartu dute, DBHn edo Batxilergoan.

# HGHEaren LAN-ARLOAK IKASTETXEETAN

Ingurumen-jasangarritasuna da ikastetxeetan presentzia handiena duen HGHEaren arloa. Gai zehatzak askotarikoak dira: energia berriztagarriak, klima-aldaketa, hondakinen murrizketa, birziklapena, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua, besteak beste. Horretarako, abian jartzen dira zaborra biltzeko kanpainak, mugikorren bilketa, ingurumen-zentroetarako bisitak eta sentsibilizazio-jarduerak oroitzapenezko egunetan. Auzoko erakunde sozialek eskola-testuinguruan parte hartzea estrategikoa da gai horrekin lotutako lana txertatzeko.

Dimentsio horren presentzia azaldu daiteke, alde batetik, Eskolako Agenda 21 delakoaren sustapenarekin, hau da, duela urte batzuk ingurumen-jasangarritasunarekin lotuta sortu zen hezkuntza-programa bat; eta, bestetik, administrazioak egiten ari diren sustapen politikoarekin (bai erkidegokoak, bai probintziakoak eta bai tokikoak), klima-aldaketaren eta ingurumen-degradazioaren eraginak arintzeko.



Genero-berdintasuna da ingurumen-jasangarritasunaren ondoren gehien lantzen den dimentsioa. Hezkuntza-erakunde horietan, berdintasuna hainbat gairekin jorratzen da, besteak beste genero-indarkeriaren aurkako borroka, parte-hartzea, botere-harremanak, ahalduntzea, emakumeek zientziari, historiari eta kulturari egindako ekarpenak ikusaraztea, segurtasuna (jazarpena edo ziberjazarpena) eta heziketa emozionala. Ikastetxeetako batean, gainera, interdependentzia eta ekodependentzia gaiak ere sartu dira. Nahiz eta esperientzia zehatza izan, baiezta daiteke ikuspegi berriak ari direla sartzen, adibidez bizitzaren jasangarritasunaren ikuspegi feminista.

Ikastetxe batzuek belaunaldi arteko esperientziak txertatzen dituzte euren ekimenetan, adinekoen zentroekiko edo gizarte-bazterketa arriskuan dauden kolektiboak artatzen dituzten zentroekiko lankidetzaren bidez. Zehazki, esperientzia horiek inplikatutako pertsona guztientzat onuragarriak diren jarduerak sustatzen dituzten esperientziak dira, baita elkarrekiko lankidetza-prozesuak eta interdependentzia ere. Mota horretako programak genero-ikuspegiaren barruan sartzen dira, elkar zaintzea baitakarte, eta, modu zuzen eta atseginean, bat datoz bizitzaren jasangarritasunaren ikuspegi ekofeministarekin. Ikuspegi horrek giza bizitzaren, norbere buruaren eta besteen zainketaren eta naturaren interdependentziaren alde egiten du.

Bestalde, genero-berdintasuna edo ingurumen-jasangarritasuna baino presentzia txikiagoarekin, kulturartekotasunaren gaia ere identifikatzen da. Izan ere, gaur egun, migrazio-fenomenoa Espainiako estatuan finkatutako errealitate bat da. Alde horretatik, gogorarazi behar da duela hamarkada bat migrazioa fenomeno berria zela ia, eta, ondorioz, ikastetxeetan ikasgelako kultura-aniztasuna kudeatzeko gako eta tresnak eskatzen hasi ziren.

Ikerketa-prozesuan aztertutako dokumentazioari dagokionez, badirudi ikastetxeetan aniztasunaren kudeaketa inklusioaren kontzeptu zabalenarekin jorratzen dela, eta horrek aukera ematen du arreta hainbat aniztasunetan jartzeko: kulturala, funtzionala, sexuala, generoarena, etab. Beraz, kulturartekotasunak elementu nagusi izateari utzi dio ikastetxeen lanean, eta aniztasuna osatzen duten beste elementu batzuetan integratu da, adibidez inklusioan, bizikidetzan eta gatazken ebazpenean. Gainera, gai espezifikoak lantzen jarraitzen dute, besteak beste xenofobiaren aurkako borroka edo errefuxiatuen errealitatea.

Azkenik, ikerketari esker, baiezta dezakegu HGHEarekin lotutako arlo guztietatik giza eskubideena dela gutxien lantzen dena. Nahiz eta ikusi den gai hori sartuta dagoela curriculumean edo ikasgairen bateko eduki gisa lantzen dela, ez da topatu eskubideen ikuspegi argia duen esperientzia esanguratsurik.

Azken finean, ikastetxeetan jorratzen diren gaiak bakerako hezkuntza, hiritartasun aktibo eta globala, txirotasuna, gizarte-bazterketa, gazteen bazterketa, hezkuntza jasotzeko eskubidea eta haurren eskubideak dira.

# CURRICULUMA ETA HGHE

HGHE ikastetxeetan sartzeko elementuei buruzko ikerketa gidatu zuen bigarren galderari dagokionez, zalantza bat sortu zen: nahitaezko curriculuma elementu lagungarria zen ala oztopo bat?

Kontsultatutako ikastetxe eta irakasleen ustez, curriculuma ez da oztopo bat, baizik eta ahalbidetzen duen elementu bat. Uste dute HGHE ez ezartzea ezjakintasunean, testu arautzaileen interpretazio okerrean, curriculuma eta edukiak asimilatzean edo testu-liburua curriculumaren agindu-emailetzat jotzean oinarritzen dela. Hala ere, baditu ahulezia batzuk, adibidez, curriculum zabalegia hezkuntza-maila eta ikasturteen arabera, eduki gehiegi, errealitaterako, ikasleen beharretarako eta testuingururako egokitzapen-maila txikia eta zehaztasun txikia herritartasunari eta balioetan oinarritutako hezkuntzari dagokienez.

Ikastetxeak eta irakasleak bat datoz HGHEaren erreferentzia-esparruaren zabaltasunarekin, eta horrek errazten du gaien arteko loturak egitea, baita ikasketa-planeko edozein arlo edo ikasgairekin ere. Irakasleen gaitasuna dute HGHE ikasketa-planeko arlo eta ikasgaiekin lotzeko, baina tutoretzarentzat gordetako espazioa da gehien errepikatzen denetako bat, eta hartatik abiatuta ekintza puntualak lotzen dira beste ikasgai batzuekin.

Arlo, ikasgai eta proiektuen arteko artikulazioa lortzeko, aintzat hartu behar dira irakasleek prestakuntza-proposamenak sortu ahal izateko baldintzak, eta proposamen horiek garrantzitsuak, eraldatzaileak eta kalitatezkoak izatea. Alde horretatik, funtsezkoa da irakasleek planifikazio zainduak, testuingurukoak, curriculumarekin artikulatuak eta ikasleen urteetako aurrerapenarekin koherenteak garatzeko dituzten benetako denbora eta espazioak aztertzea. Hala ere, hezkuntza-prozesuan administrazio-atalak eta burokratizazioak eragin negatiboa izan ohi dute ekimen horietan.

Analisiarekin bat, ikastetxearen barruko eta komunitatearekiko artikulazioek aukera ematen dute HGHEan oinarritutako hezkuntza-praktikak garatzeko; izan ere, metodologia pedagogiko aktiboak sustatzen dituzte, konpetentzia akademiko eta sozioemozionalak garatzen dituzte eta herritar kritikoak, arduratsuak eta globalak lortzeko balioak sustatzen dituzte.

HGHEan oinarritutako ikaskuntzak finkatzeko tresna bat ebaluazioa da. Elementu berezi horrek hezkuntza-prozesuen ebazpen- eta integrazio-mailari buruzko informazioa ematen du, eta, zehazki, konpetentzien garapenera bideratutako ebaluazioak.

# KANPOKO ERAKUNDEEKIKO HARREMANA

Ikastetxe guztiak ari dira lankidetzan kanpoko erakundeekin[5]: GKEak, auzoko elkarteak edo administrazio publikoen erakundeak. Gainera, ohikoa da lankidetzan aritzea beste erakunde batzuekin, adibidez, adinekoekin egoitzekin, jantoki sozialekin, enpresekin edo ekonomia sozialeko kooperatibekin. Irakasleek honako hau baloratzen dute kanpoko erakundeekiko harremanei begira:

- Denboran zehar iraun duten programek barne hartzen dituzte, kasu askotan, irakasleen prestakuntza eta HGHEaren proiektuekin laguntzea ikastetxean.
- Erakundeek eskainitako material eta jarduerek balorazio ona dute gaiengatik, materialen kalitateagatik, metodologiengatik eta ikasleak motibatzeko gaitasunagatik.
- Ekintzak garatzea ikastetxetik gertuko tokiko elkarteekin lankidetzan: horrek eragin positiboa du komunitatean. Ekintza horiek laguntzen dute ikastetxeak ikusarazteko eta haiei nortasuna emateko ehun sozialaren barruan. Gainera, ikasleak integratzen ditu eta euren ingurumena eta bertan duten rola ulertzen laguntzen die.

Gazteen Sare Solidarioa (Entreculturas) eta Hiritartasun Globalerako Hezitzaileen Sarea (Oxfam Intermón) bezalako ekimenek aukera ematen dute sareko lana finkatzeko, eta irakasleen eta ikasleen ahalduntzea sustatzen dute. Ikastetxe batek eskatzen duen formaltasuna gainditzen duten egituratu gabeko espazio askeak dira, eta hasieran kontzientzia hartzea indartzen dute, beharrezkoa baita eraldaketa sozialeko prozesuetan aurrera egiteko.

Kontuan hartu beharreko kontu bat ikastetxe bakoitzak urtero jasotzen duen proiektu eta ekimenen eskaintza masiboa da, bai erakundeen eta bai administrazio publikoen eskutik. Alde batetik, ikastetxearen dinamikak eta ikasleen ikaskuntzak aberasteko aukerak dira, baina, bestetik, proposamen gehienen behin-behinekotasunak eta prozesuen ezinbesteko eguneraketak eragin dezakete ikastetxe batean hainbat ekimen egotea, eta horrek arreta eta ahaleginak zati ditzake.

[5] Elkarrizketatutako ikastetxe guztiek kanpoko lankidetzak dituzte ikerketaren erakunde sustatzaileekin: 12 kasuk lotura dute Entreculturasekin Gazteen Sarearen eta lankidetza egonkorren bidez; 7 ikastetxek Oxfam Intermón erakundearen Munduak elkarlotuz proiektuarekiko eta Hiritartasun Globalerako Hezitzaileen Sarearekiko lankidetza aipatu dute; 3 InteReden Ikastetxeen Sarean daude; beste 3 Nafarroako Eskola Solidarioen kide dira eta Alboanekin egiten dute lan; eta azken 4ek erreferentzia egin diote erakunde honekiko lankidetzari.

# OSASUN-LARRIALDIA

Ikastetxeetan, pandemiak eragina izan du HGHEaren jardueren erritmoan. Irakasle gehienek adierazi dute egoera horren ondorioz HGHEaren jardueren erritmoa jaitsi dutela. Gainera, lankidetzaren eta metodologia parte-hartzaileen murrizketa identifikatu da. Bizitako egoeraren ondorioz, irakasleen azpimarratu dute beharrezkoa dela ikasleen arlo sozioemozionala lantzea.

Nahiz eta pandemia tokikoaren eta globalaren arteko konexioaren adibidea argia izan den, ikastetxe gutxik baliatu dute pandemia harreman global horretan zentratutako jarduerak lantzeko. Hala ere, oro har ikusi da diziplinarteko lan-aukera bat eta proiektu zabalak sortzeko aukera bat, ikuspegi kritikoarekin eta tokikoa-globala dimentsioarekin.



# ONDORIOAK

HGHE edozein ikastetxetan gara daiteke, ezaugarrien heterogeneotasun zabala hauteman baita hura ezarri duten ikastetxeetan. Adibidez, aukera gisa baloratzen da auzo edo eremu sozioekonomiko konplexuetako ikastetxeetan, zaurgarritasun-egoeran dauden familiekin, integrazio aktiboaren alde egiten baitu komunitatearen ehun sozialean. Integrazio horren emaitza dira ikastetxearen balorazio hobea eta ikasleen integrazio hobea; gainera, hobeto ulertzen dute euren ingurunea.

Zuzendaritza-taldeak garrantzitsuak dira HGHEaren proiektuak eta jarduerak sartzeko, nahiz eta gero irakasle boluntarioak edo egitura bat arduratzen diren haien garatzeaz; izan ere, tresna erabilgarria da aldaketa-prozesuetan eta ikastetxearen hobekuntza integralera bideratutako hezkuntza-proposamenen eraikuntza eta ezarpenean.

Irakasleei dagokienez, funtsezko eragileak dira HGHE ikastetxean ezartzeko; hala ere, haien lanaren izaera ikusezina eta ikastetxeen barruan HGHEaren jarduera eta proiektuak sustatzeak batzuetan eragiten duen gainkarga (curriculuma egokitzea, lan-ordutegitik kanpo egindako orduak eta prestakuntza pertsonala, besteak beste) zaindu behar dira.



Hauek dira irakasleen ezaugarri nagusiak:

| | | |
|---|---|---|
| **Titulazioen eta ezagutza-arloen aniztasuna, baita ikastetxeko ibilbidea ere.** | **Ikastetxearekiko inplikazio handia eta lanbidearen bokaziozko bizipena.** | **HGHE hezkuntza-funtzioaren zatitzat jotzen du.** |
| **Sozialarekiko bokazioarekin. Askotan, boluntariotza-esperientziekin (nazionala eta nazioartekoa).** | **Profil aktiboarekin komunitatearekiko harremanean.** | **Etengabeko prestakuntza eta inplikatzen jarraitzea.** |

Jarduera eta proiektuei dagokienez, aintzat hartu behar da ikastetxe bakoitzean izen desberdina dutela, baina kontzeptuaren azpian dagoen hezkuntza-esparrua eta -proposamena onartzen direla.

Aztertutako esperientzia heterogeneoek, eragozpena izatetik urrun, agerian jartzen dituzte HGHEak hainbat testuingurutara egokitzeko eta prozesu kontrolatu eta progresiboagoak garatzeko ematen dituen aukerak.

Jardueren kategoriak lotura du ikastetxeak gaietan eta planifikazioan egitura-aldaketak egiteko duen gaitasunarekin.

HGHEarekin lotutako proposamen asko irakasle sustatzaileen mende daude, eta horrek gainkarga-sentipena eta nekatzeko eta esperientziak amaitzeko arrisku handia eragiten ditu. Beharrezkoa da ekintzak ikusaraztea, aitortzea eta curriculumarekiko eta ikastetxearen hezkuntza-ekintzarekiko artikulazioa handitzea.

Ikasleen parte-hartze boluntarioak kontsiderazio bikoitza pizten du, eta hori kontuan hartu behar da lortu nahi den helburuaren arabera. Alde batetik, eskola-ordutegitik kanpoko ekimen boluntarioek eragin handia dute partaide bakoitzean; izan ere, talde txikitan egiten dira, erraz kontrola daitekeen prozesu baten bidez. Gainera, partaideek, kontzienteki, haien denbora eta inplikazioa erabiltzen dituzte. Bestalde, curriculuma zehazteko ekimenak eta irakastorduetan boluntariotza edo ApS espazioak sartzen dituzten hezkuntza-prozesuak lagungarriak dira HGHEaren aldeko testuinguruak sortzeko. Gainera, esperientzia horietan ikasle guztiek hartzen dute parte.

Ekintza eta proiektuen barruan ez dago orekarik tokiko dimentsioaren eta globalaren artean. Ekintza gehienek tokikoa azpimarratzen dute, adierazgarriagoa baita ikasleentzat, baina HGHEaren esanahia lausotzen dute.

Ikerketan egindako analisian gehien azpimarratzen den elementuetako bat zera da, eskola-curriculuma ez dela baldintzatzaile galarazlea HGHEaren jarduerak egiteko. Konpetentzien araberako curriculum-ikuspegia ikuspuntu horretako lana errazten du, nahiz eta irakasleen adierazi duten arazoak dituztela planifikazioarekin eta abian jartzearekin. Arlo horretan oraindik marjina handia dago konpetentzien eta ikaskuntza-emaitzen esparru bat ezartzen jarraitzeko, HGHEarekin koherenteagoa izango dena curriculum-edukietan oinarritutako egungo sistema baino.

Gaur egun, HGHEarekin lotutako proposamenak ezartzeak ikastetxeak eta irakasleak inplikatzen ditu, eta denbora asko behar izaten dute haiek planifikatu, antolatu eta programatzeko. Gainera, haien edukiak, konpetentziak eta proposamenak ez dira jasotzen, adibidez, testu-liburuetan. Hezkuntza-prozesuen burokratizazioa eta administrazio-atala ere oztopotzat jotzen dira, ikastetxearen barruan proiektu eta proposamen berriak egiteak dakartzan kudeaketa eta dokumentuengatik.

Alde horretatik, ikastetxeek eta irakasleen hezkuntza-prozesu bat diseinatzeko konpetentziak eta espezializazioa aldarrikatzen dituzte, baita HGHE ikasketa-planaren arlo eta ikasgaietan sartzeko gaitasuna ere. Horretarako, lagungarriak izango dira HGHE jasoko duen irakasleen hasierako prestakuntza eta ikasgelan sartzeko perspektiba zabala.

Ikastetxeek parte hartzeko proiektuen eskaintza handiegia jasotzen dute, bai erakundeen eta bai administrazioaren eskutik, eta horietako askok ez dute denbora zehar iraun dezakeen planifikazio bat. Ikastetxeek proposamen gehiegitara atxikitzeko joera dute, prozesu integratuak garatu ordez; ondorioz, ahaleginak zatitzen dira eta emaitzak ahultzen dira.

Amaitzeko, ikastetxeen eta beste eragile batzuen arteko harremanei dagokienez, erakundeekiko lankidetza funtsezkotzat jotzen da. Izan ere, ikastetxeek deskribatutako jarduera gehienak haien laguntzarekin jarri dira abian. Harrera ona egiten diete erakundeek egindako esku-hartze proposamenei eta materialei, eta bi kontuak, gainera, etengabeko prestakuntzarekin identifikatzen dituzte.

# GOMENDIOAK
## Arloa: Ikastetxeak

## 01 HGHE sartzea ikastetxeetako kudeaketa- eta programazio-prozesuetan

1. HGHE barne hartuko duten prozesu eraldatzaileak planifikatzea, ardatz nagusi batetik abiatuta, esate baterako ikastetxearen hezkuntza-proiektua izatea.

2. Zuzendaritza-taldeetan prozesu horien lidergoa sustatzea. Horrela, HGHE ikastetxeetako aldaketa eta hobekuntza integralen parte izan daiteke.

3. Ikasturtearen planifikazioa azpimarratzea eta HGHE lotzea metodologia aktibo eta parte-hartzaileen ezarpenarekin, adibidez IZS (Ikasketa eta zerbitzu solidarioa) eta POI (Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza). Irakasleen lan horretan laguntzeak HGHEarekin lotutako berrikuntza-prozesuak sustatzea ekar dezake.

4. HGHEko esperientzia eta praktika berezien mapa bat sortzea, ahaleginak aitortzen laguntzeko, talde-lana sustatzeko eta irakasleek ikasteko iturria izateko.

5. Tokiko errealitatea errealitate globalarekin lotuko duten hezkuntza-materialak sortu eta hautatzea, ingurunea hobeto ulertzeko.

# GOMENDIOAK

## Arloa: Ikastetxeak

## 02 HGHE sartzera bideratutako irakaskuntza-konpetentzien garapenaren alde egitea

6. HGHEaren esperientzia praktikoak eta bizipenak sustatzea irakasleen artean. Sentsibilizazioa funtsezkoa da HGHEaren ikuspegiak sartzeko. Alde horretatik, garrantzitsua da prestakuntza- eta sentsibilizazio-instantziak irakasleen profil eta beharretara egokitzea. Konpetentzien arloan, HGHE lantzeko aukera bat da.

7. Irakasle eta zuzendaritza-taldeentzako prestakuntza-prozesuak indartzea, alde batetik, HGHE lantzen duten irakasleei zuzendutakoak bereiziz, eta, bestetik, oraindik ikuspegi horiek sartu ez dituzten irakasleei zuzendutakoak.

8. Irakaskuntzan sartu diren irakasle berrientzako laguntza-prozesuak planifkatzea, HGHE lantzeko eta eredu zaharrak ez erreproduzitzeko.

9. Klaustroen prestakuntzan hainbat gairen gaitasun bideratzailea baliatzea, besteak beste genero-berdintasunarena, giza eskubideena, kultura-aniztasunarena, justizia sozialarena eta ingurumen-jasangarritasunarena, tokiko dimentsioa eta globala orekatzeko.

10. Konpetentzien araberako planifikazio- eta garapen-prozesua oraindik ez da errotu irakasleen artean. Arlo horretako beharrezko prestakuntza HGHE lantzeko aukera bat izan daiteke.

11. Osasun-larrialdiaren jatorria eta ondorioak sentsibilizatzeko eta lan-ildo berriak irekitzeko aukera bat izan daitezke, bereziki erronka global handiak ulertzera eta metodologia aktiboak sustatuko dituzten hezkuntza-prozesuak garatzera bideratutakoak (prozedura tradizionaletara itzuli ordez).

# GOMENDIOAK

Arloa: Ikastetxeak

## 03 Curriculuma diseinatzeko eta HGHE sartzeko aukerak baliatzea

**12.** Ikasgelaren programazio orokorraren curriculumean sartuko diren kanpoko prestakuntza-proposamenak lehenestea, epe ertain eta luzean lan egiteko. Prozesuen iraupena funtsezko aldagaia da lorpenen ikusgarritasunari begira.

**13.** "Ez oztopatu" edo "ez mugatzetik" harago, lege-esparru bat hezkuntza-praktika eraldatzaileak ahalbidetuko dituzten ikuspegien integrazioaren sustatzaile gisa eraiki behar da, ikasleak eta komunitatea hobeto garatzeko.

**14.** Autonomia-erkidegoek marjina handia dute HGHEaren ikuspegiak barne hartuko dituzten hezkuntza-proposamenak zehaztu eta sortzeko; izan ere, zeharkakoak eta bateragarriak dira erkidegoetako curriculum-esparruekiko.

**15.** LOMLOE legearen curriculum-esparrua baliatzea HGHEari dagokionez.

**16.** Curriculum-esparrua Ikaskuntza eta Zerbitzua eta Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza bezalako metodologiekin lotzea aukera bat da. Mota horretako metodologiek tokikoaren eta globalaren arteko konexioen eta kontzientziaren alde egiten dute, eta pentsamendu kritikoa eta talde-lana bezalako konpetentziak eta trebetasunak eta elkartasuna eta zaintza bezalako jarrerak garatzen dituzte.

**17.** Irakasleek parte hartzeko espazioak sustatzea jabetze kulturalaren prozesuetan. Horrek eragin positiboa izan dezake irakaskuntzaren planteamenduan, baita hezkuntza-materialaren prestaketan ere.

# GOMENDIOAK

## Arloa: Ikastetxeak

## 04 Erakunde sozial eta ikastetxeen arteko harremana eta beste eragile batzuekiko artikulazioa indartzea

**18.** Koordinazio-mekanismoak sortzea ikastetxeetan zuzenean edo zeharka jarduten duten eragileen artean. Badaude GKE-en, administrazioen eta ikastetxeen arloko lankidetza-aurrekariak, eta inspirazio-iturri izan daitezke.

**19.** Erakunde sozialek hezkuntza formalean HGHE sartzeko egiten ituzten ahaleginak ehun sozialaren beste ekimen batzuekin lerrokatzea, ikasleek parte hartu ahal izateko.

**20.** Premiazko eta garrantzi handiko gaiei buruzko proposamen didaktiko nagusiak egitea sustatzea. Irakasle berrientzat hasteko modu ona da.

**21.** HGHEarekin lotutako aniztasun terminologikoa ez izatea oztopo bat hezkuntza formalean garatzeko.

# HIRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA ERALDATZAILEA IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZAN

# ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN TESTUINGURUA

HGHEak irakasleen etengabeko prestakuntzan duen presentziaren analisiak, hezkuntza-eskumenak dituzten administrazio publikoek proposatuta, gure testuinguruan 4.7 xedea lortzeko egiten ari diren ahaleginak irudikatzen laguntzen digu, baita lanean ari diren irakasleak esparru horretan garatzen ari diren edo garatu behar dituzten konpetentziak ere.

Etengabeko prestakuntza eskubidetzat jotzen da, eta administrazio publikoek bermatu behar dute; horrez gain, irakasleen betebehartzat ere jotzen da, eta, beraz, irakasleen erantzukizuna da. HGHEak duen presentzia nolakoa eta zein neurritakoa den ikusteak informazio garrantzitsua ematen digu balizko hutsuneak identifikatzeko eta hura sartzeko gomendioak egiteko. Horrela, irakasleek hura euren hezkuntza-praktikan sartzeko beharrezko tresnak, denborak, prestakuntza eta laguntza izango dituzte.

**Ikerketan zehar, azterketarako erreferentzia gisa hartu diren 9 autonomia-erkidegoetako prestakuntza-zerbitzuetan eskuragarri dagoen dokumentazioa berrikusi da, eta 7 elkarrizketa egin dira, bost hezkuntza-zerbitzuei, bat Gaztela eta Leoneko Juntaren Nazioarteko Lankidetza zerbitzuari eta beste bat Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioaren Lurralde Lankidetza eta Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendariordetza Nagusiari (SGCTIE). Elkarrizketetan guztia 15 pertsonak hartu dute parte, horietatik 10 emakumeak.**

15
PERTSONA

7
ELKARRIZKETA

9
AUTONOMIA-
ERKIDEGO

**Analisia honela antolatu da:**

| 01 | 02 | 03 |
|---|---|---|
| NORK EGITEN DITU IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO PROPOSAMENAK | ZEIN NEURRITAN DAGO SARTUTA HGHE PRESTAKUNTZA-LEHENTASUNETAN | PRESTAKUNTZA-PROPOSAMENEN EZAUGARRIAK |



# ANALISIAREN ORIENTAZIO-GALDERAK

### 01. GALDERA

HGHE sartuta dago erkidegoetako hezkuntza-administrazioek diseinatutako irakaskuntza-prestakuntzaren proposamenetan?

### 02. GALDERA

HGHEarekin lotutako gai edo metodologiak sartu dira irakaskuntza-prestakuntzaren proposamen horietan?

### 03. GALDERA

Zein ezaugarri (iraupena, formatua, metodologia) dituzte arlo horietan diseinatu edo sustatutako eta HGHEari buruzko irakaskuntza-prestakuntzaren proposamenek?

### 04. GALDERA

Eragileen arteko koordinazio-esperientziak daude (administrazio publikoen sailak, erakunde sozialak, beste mota batzuetako eragileak, etab.) HGHEari buruzko irakaskuntza-prestakuntzaren proposamenak diseinatzeko?

### 05. GALDERA

Erkidegoetako hezkuntza-administrazioek sustatutako eta HGHEari buruzko irakaskuntza-prestakuntzaren proposamenak daude, eta horien ezaugarriengatik erreferenteak izan daitezke antzeko proposamenak abian jartzeko?

### 06. GALDERA

GGKE-ek zein gomendio egin ahal dizkie hezkuntza-administrazioei HGHE sartzeko irakaskuntza-prestakuntzaren proposamenetan?

# IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

rediE-ren arabera, irakasleen etengabeko prestakuntza "haien prestakuntza zientifikoa, teknikoa, didaktikoa eta profesionala hobetzera bideratutako prestakuntza-jardueren multzoa da. Bat etorri behar du zientzia eta didaktika espezifikoen bilakaerarekin, eta metodologiarekin, aniztasunaren arretarekin, informazioaren era komunikazioaren teknologiekin eta atzerriko hizkuntzetako prestakuntzarekin lotutako ezagutzak eskaini behar ditu". (rediE Eurydice España eta rediE, 2019). Badago termino paralelo bat, Etengabeko Garapen Profesionala (DPC), eta honela definitzen da: irakasleek ibilbide profesionalean zehar egiten duten etengabeko prestakuntza, aukera ematen diena euren ezagutza, trebetasun eta jarrerak zabaldu, garatu eta eguneratzeko. Formala edo informala izan daiteke, eta barne har ditzake gai jakinei buruzko prestakuntza edo prestakuntza pedagogikoa. Hainbat formatutan eskaintzen da: ikastarotan, mintegitan, berdinen arteko behaketan eta irakasle-sareen laguntzaren bidez. (Europako Batzordea/EACEA/Eurydice, 2018, 118. or.)



Hurbilketa kontzeptual horietako bakoitzean sar daitezken ñabarduretatik harago, biek prestakuntza-arlo bat aurkezten dute, irakasleei zuzendutakoa, eta esku hartzeko hainbat arlo (hezkuntzarekin estuki lotutakoetatik kulturarekin edo ematen diren gaiekin lotutakoetara), formatuen dibertsifikazioa eta hainbat sistematizazio-maila aurreikusten ditu.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren (LOE) 103 artikuluak zuzenean inplikatzen ditu hezkuntza-administrazioak irakasleen prestakuntza-jardueren planifikazioan, eskaintza anitz eta doakoa bermatzeko, baita parte-hartzea sustatzeko neurri egokiak ezartzeko ere. Hezkuntzan eskumenak dituzten administrazio publiko guztiek lehentasunezko ildoak zehazten dituzte irakasleen etengabeko prestakuntzarako[6].

Eskuragarri dagoen informazioaren analisian sartu aurretik, prozesuaren bi muga aurreikusi behar dira: eskuragarri dagoen informazioa ez eguneratu izana eta parekoak ez diren proposamenak. Lehenari dagokionez, kasu batzuetan eskuragarri dagoen dokumentazio digitala ez da berria; beraz, ezin da jakin erreferentziazko dokumentu berriagorik dagoen informazio desberdin eta garrantzitsuarekin. Bigarren elementuari dagokionez, nahiz eta ez den analisia eragozten duen muga bat, adierazi behar da autonomia-erkidegoek egindako prestakuntza-proposamenak askotarikoak direla, eta ez direla parekoak; beraz, zuhurrak izaten gara autonomia-erkidego guztietara estrapolatzeko ondorioak ateratzeko orduan. Hala ere, kasu bakoitzean berariaz adierazita, uste dugu egindako analisiak elementu interesgarriak eman dizkigula, eta lan honetan partekatuko ditugu.

Irakasleen etengabeko prestakuntzari buruzko eranskinean[7] eskuragarri dago ikerketan parte hartu duten 9 autonomia-erkidegoen analisi laburra, baita gai horri buruzko informazio osagarria ere Estatuko gainerako autonomia-erkidegoetan.

[6] Informazio gehiago: http://www.educacionyfp.gob.es/mc/redie-eurydice/sistemas-educativos/profesorado/formacion-permanente-profesorado.html

[7] Or.: 69-129.

# NORK EGITEN DITU IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO PROPOSAMENAK

Egituraren eta antolakuntzaren ikuspuntutik, hezkuntza-sailek, autonomia-erkidego bakoitzean, prestakuntzaren eta berrikuntzaren kudeaketa babestu ohi dute Zuzendaritza Nagusietan (ZN). Gainera, kasu batzuetan, aurrekoen mende, zerbitzu edo unitate tekniko espezifikoak sortzen dira. Prestakuntza-batzorde edo -aholkularitza bat ere ardura daiteke laguntza emateaz. Sistemaren beste gakoetako bat irakasleen prestakuntza-zentroak dira, eta prestakuntza gehiena planifikatu eta emateaz arduratzen dira; autonomia-erkidego bakoitzean izen desberdina dute.

Estatu-mailan, Hezkuntza Teknologien eta Irakasleen Prestakuntzaren Institutu Nazionalak (INTEF)[8] hainbat prestakuntza-aukera eskaintzen ditu (MOOC, NOOC, EDUPILLS[9], udako ikastaroak eta egonaldi profesionalak) eta hezkuntza-baliabide irekien sorrera, eraldaketa metodologikoa eta teknologia digitalak hezkuntzan sartzea sustatzen ditu.

Lan horretan inplikatutako eragile publikoek engranaje konplexu eta anitz bat osatzen dute azkenean, eta hori euskarri bat da unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistemako irakasle guztien etengabeko prestakuntzarentzat.

Irakasleen prestakuntza-zentroetako aholkularitza-taldeen esperientziaren eta espezializazioaren garrantzia azpimarratzea. Erkidegoetan esku hartzeko arloekin lotutako aholkularitza espezifikoak daude. Hala ere, ez da talde horien espezializazioa aurreikusten HGHEan, jasangarritasunean, GJHetan, konpromiso sozialean, justizia globalean, etab.[10]. HGHE prestakuntza-unitateak osatzen dituzten pertsonen profilean sartzeko proposamenik ez dagoenez, aholkularitza-postuetan sartzen diren pertsonen esperientzia pilatuak garrantzia hartzen du[11]. Aholkularitzak lanean ari diren irakasleekin betetzen dira, zerbitzu-eginkizunen bidez. Aholkularitza bat ez bada identifikatzen HGHEaren profilarekin, lanpostuan sartzen den pertsonaren esku gelditzen da prestakuntza espezifikoa antolatzeko edo beste gai batzuekin lotutakoa ikuspegi horretatik orientatzeko aukera.

8 Informazio gehiago: https://intef.es/

9 EduPills irakasleentzako mikro-prestakuntza APP bat da, irakasleek trebetasun eta konpetentzia digitalak lortu eta garatzeko modu azkar eta sinplean. Informazio gehiago hemen: https://edupills.intef.es/

10 Bartzelonaren kasua salbuespen bat da, Consorci d'Educació erakundearen bidezko antolakuntzagatik, dagokion taulan adierazten den moduan.

11 HGHEaren esparruan lan handia egin duen profilen baten kasu isolaturen bat azpimarratzen dugu, araua baieztatzen duen salbuespen gisa.

Irakasleen etengabeko prestakuntzaz mintzatzean, ezin dugu ahaztu autonomia-erkidego bakoitzeko lankidetza-zerbitzu edo -unitateek izan duten rola, bai deialdi irekien bidez GGKE-ei finantzatutako HGHEaren ekintzen bidez eta bai hezkuntzako administrazio-unitateekin adostu eta partekatutako programan abian jartzearen bidez. Lehen esku-hartzeak izan dira HGHE eskolara eraman dutenak eta irakasle-taldeen prestakuntza ahalbidetu dutenak. Hiritartasun Globalean prozesu horien alde lan egiten duten erakundeek erakutsitako ahalegin eta borondate historikoa gorabehera, onartu behar da muga garrantzitsuak dituztela: ikastetxe-maparen estaldura integrala lortzeko zailtasunak; denboran zehar irautea, lotuta egoten baita garapenerako lankidetzaren deialdi publikoetako hezkuntza.kapituluen gorabeherekin; hezkuntza-komunitateko eragileek bitartekari gisa legitimatzeko jartzen dituzten trabak, etab.

Badaude hainbat eragileren artean artikulatu dituzten irakasleentzako prestakuntza-proposamenen esperientziak: hezkuntzan eskumenak dituzten administrazio publikoak, erkidego-mailako lankidetza-zerbitzuak, garapenerako lankidetzako erakunde sozialak eta beste batzuk. Partekatutako proposamen horiek hezkuntza-zerbitzuek irakasleentzako prestakuntza-orduak aitortzean eta lankidetza-unitateek babestutako erakundeek ekimenak diseinatu eta garatzean oinarritzen dira[12]. Beste elementu garrantzitsu bat zera da, sektore anitzeko koordinazioan oinarritutako proposamenak direla, eta, HGHE sartzeko estrategia garrantzitsua izateaz gain, aukera ematen dute giza eskubideen ikuspegian sakontzeko, sektore-aniztasuna ikuspegi hori osatzen duten elementuetako bat baita.

Halaber, autonomia-erkidego guztietan identifikatu ditugu 2030 Agendara eta GJHetara hurbiltzeko ahaleginak[13] . Hala ere, nahiz eta asmo handiagoko proposamenak egon, ildo horretako ekimenak ahulak dira oraindik Garapen Jasangarrirako Helburuen 4.7 xedea lortzeari dagokionez.

Estatu-mailan, Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioak abian jarri du Lurralde Ebaluazio eta Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren mendeko Lurralde Lankidetza eta Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendariordetza Nagusia (SGCTIE). Zuzendariordetzaren barruan Jasangarritasun Arloa dago, eta Garapen Jasangarrirako Hezkuntza (GJH) eta Hiritartasun Globalerako Hezkuntza (HGH) lantzen ditu. Haren egitekoa da ezagutza hedatzea (lankidetza Vicente Ferrer Sarietan, hedapena, komunikazioa eta prestakuntza), kanpoko beste unitate batzuekin lankidetzan (AECID, Trantsizio Ekologikoaren Ministerioa, INTEF, Kanpoko Hezkuntza Unitatea). Idazkaritzaren xedea da HGH sustatzea eskumen-esparruaren barruan.

---

[12] Alde horretatik, bi esperientzia berezi azpimarratzen ditugu, bi autonomia-erkidegoren analisi-tauletan aipatutakoak: Nafarroa, Eskola Solidarioekin, eta Katalunia, Bartzelonako Consorci d'Educació erakundearen kasuarekin.

[13] Adibide espezifiko gisa hauek aipatzen dira: Próxima Estación: ODS 2030 (Gaztela eta Leoneko Junta) edo ikerketan zehar GJHak sartzea Extremadurako irakasleen prestakuntza-programetan. Azken ekimen hori oso berria da, baina aukerak sor ditzake prestakuntza-eskaintzan.

# ZEIN NEURRITAN DAGO SARTUTA HGHE PRESTAKUNTZA-LEHENTASUNETAN

Autonomia-erkidego bakoitzak bere `prestakuntza-proposamenetan sustatu beharreko ildo tematikoak lehenesten ditu. Europako Hezkuntza Espazioa sortu zenetik, funtsezko konpetentziak eta haietan oinarritutako hezkuntza-prozesuen planifikazioa interesgarriak dira hezkuntza-administrazioen prestakuntza-ardatzetan. EBren Batzordeak argitaratutako dokumentuan (2018) jasotako etengabeko ikaskuntzarako funtsezko konpetentzietatik abiatuta, hauek dira autonomia-erkidegoek gehien aipatu dituztenak:

- herritarren konpetentzia
- konpetentzia digitala
- konpetentzia eleaniztuna
- konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa
- konpetentzia ekintzailea

Horietako bik (herritarren konpetentzia eta konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa) lotura zuzena dute hiritartasun globalarekin.



# PRESTAKUNTZA-PROPOSAMENEN EZAUGARRIAK

Proposamenen iraupena, formatuak eta ezaugarriak askotarikoak dira. Une honetan, modalitate nagusienetako bat prestakuntza-pilula laburrak dira; hala ere, erkidego batzuek epe ertaineko prestakuntza-prozesuen alde egiten dute, eta bi eta lau urte artekoak izan daitezke: Gaztela eta Leonek aukera ematen du hainbat prestakuntza-modalitate integratzeko, ibilbideen arabera: Kataluniak ikastetxe bakoitzean 3 urte iraun dezaketen berrikuntza-programak eskaintzen ditu, aldaketa-oinarri errealak finkatzeko, eta Euskadik ere 3 urteko epeetan planifikatutako ikastetxe-prestakuntzak sustatzen ditu.

Lortutako informaziotik ondoriozta daiteke irakasleen etengabeko prestakuntza-planetan zaila dela HGHEan espezializatutako eskaintza bat aurkitzea. Dena dela, HGHEarekin bat datozen gaiak identifika daitezke, besteak beste jasangarritasuna (neurri handian oraindik ingurumenera mugatuta); genero-berdintasuna, hezkidetza eta ekitatea; integrazioa eta aniztasuna; eta konpetentzia-ikuspegia. Genero-berdintasuna da berrikusitako prestakuntza-eskaintzan presentzia handiena duena. Bestalde, giza eskubideekin lotutako prestakuntza-eskaintza txikia topatu da, eta horrek adierazten du HGHEaren arlo zehatz hori indartu behar dela etengabeko prestakuntzaren esparruan.

Aurrekoaz gain, ikasleen eta ingurunearen arteko harremana hobetzen duten hainbat metodologia identifikatu dira, besteak beste Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioa (IZS) eta Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI). Metodologia horiek HGHEarekin lotutako balioak sustatzen dituzte, besteak beste hauek: enpatia, bestearen aitortza aniztasunean, elkarrekiko babesa, pentsamendu kritikoa, lehiakortasunik eza, ekitatea, erantzukizun herritarra, etab. Hala ere, hutsune bat hauteman da balio horiek esplizitu egiterakoan eta HGHEaren partetzat jotzerakoan. Gai eta metodologia horietan dimentsio globala sartzeko ere zailtasunak topatu dira; beraz, uste dugu oso txikia dela HGHEaren integrazioa, bai berariaz eta bai zeharka.

Datuen analisitik eratorritako baldintzatzaile indartsu bat denboraren eta prozesuen jasangarritasunaren gaia da. Curriculumean gutxi landutako gaiek denbora luzeak eta espazio handiak behar dituzte. HGHE gutxi ezagutzen dute irakasle askok, eta askotan sinesmen eta jokaerak zalantzan jartzeko prozesu pertsonalak eragiten ditu; beraz, denbora luzea behar da. Era berean, metodologiak eta lan egiteko moduak aldatzeak konstantzia, inplikazioa eta epe ertain eta luzeko planifikazioa eskatzen ditu. Egindako analisiari begira, esan dezake estrategia zehatza eta HGHE sustatu eta jarraitzeko egiturak dituzten hezkuntza-erakundeak gai direla ekimen holistiko eta integralak ezartzeko, eta horrek egin eta hezteko moduak eralda ditzake epe luzean. Hala ere, ez da ohikoa ezaugarri horietako denbora-tartea duten prestakuntza-proposamenak aurkitzea.

Etengabeko prestakuntza eta berrikuntza batzeko joera dago, eta horrek agerian uzten du elkarren arteko mendekotasuna. Gainera, egungo etengabeko prestakuntzaren lehentasunezko ildoetako bat IKTak eta sareko hezkuntza dira. Nahiz eta momentuz ildo hori oso bideratuta dagoen tresna elektronikoak erabiltzeko konpetentzia eta trebetasunak sortzera, eremu zabala da, eta gai izan daiteke ikuspegia zabaltzeko eta oro har HGHEaren printzipioekin eta zehazki giza eskubideen ikuspegiarekin lotutako beste proposamen batzuk jasotzeko. Arrakala digitala, teknologiarako beharrezko euskarri fisikoen ingurumen-eragina eta karrera informatikoaren eta programazioaren maskulinizazioa, besteak beste, giza eskubideak IKTetan eta online hezkuntzan sartzea ahalbidetzen duten elementuak dira.

Aipatzen den beste kontu bat ikastetxeek jasotzen dituzten esku hartzeko proposamenen eta proiektuen dibertsifikazioa handia da, eta maiz ez dira bide komun batean sartzen. Ondorioz, elkarrekin lotu gabeko esperientzia puntualak sortzen dira, eta balio txikia ematen diote hezkuntza-proiektuaren garapenari. Administrazio publikoek egindako prestakuntza-eskaintzari beste eragile batzuena gehitu behar zaio, eta, HGHEaren kasuan, garapenerako lankidetzako gobernuz kanpoko erakundeen, beste erakunde sozial batzuen eta unibertsitateen proposamenak izan daitezke, besteak beste.

# OSASUN-LARRIALDIA

Osasun-larrialdiaren egoerak berekin ekarri du sareko prestakuntza inoiz baino gehiago hedatzea. Hainbat autonomia-erkidegok “prestakuntza-pilula” laburrak eskaintzen dituzte, eta arazo zehatzei erantzuten diete, tresna digitalen erabilerarekin lotuta. Gainera, aurrez aurreko presentzia eskatzen ez duten zerbitzuak abian jarri edo indartu dura, eta, gainera, prestakuntzak formatu horretarako egokitzea ahalbidetzen dute. Horrez gain, irakasleek autoprestakuntza-espazioak eta baliabide-bankuak partekatzen dituzte, edo administrazioek proposatzen dituzte.



# ONDORIOAK

Prestakuntza-eskaintza motei dagokienez, lanean ari diren irakasleentzako etengabeko prestakuntza-eskaintzaren unitate arduradunek HGHEaren berezko gai eta metodologiekin lotutako prestakuntza-eskaintza dute, baina ez dago ia dimentsio horretan sakontzeko prestakuntza-proposamen esplizitu eta integralik. Alde horretatik, HGHEaren berezko metodologiak erakargarriak izan daitezke irakasleentzat, berrikuntzaren "pertxaren" bidez; arlo hori etengabeko prestakuntzarekin identifikatzen da neurri handi batean. Horrez gain, esan dezakegu HGHEaren ikuspuntuak ez direla argi eta garbi sartu harekin lotutako gai edo metodologiak lantzen dituzten prestakuntzetan.

Datuak biltzeko prozesuan zehar hainbat iturrik egin diete erreferentzia laguntza-prozesuei, bai irakaskuntzan sartu diren irakasle berriei laguntzeari eta bai ikastetxeetan barne-prozesuak ezartzeari dagokionez. Alde horretatik, tokiko prestakuntza-zentroek oso rol garrantzitsua izan dezakete aholkularitza baten espezializazioa eta gai horietan adituak diren kanpo-erakundeen laguntza izango balute.



Curriculuma aplikatzeak, ikastetxeko dokumentuetan esplizituki jasotzeak, ikuspegi berriak ezartzeak (adibidez, konpetentziena) edo berrikuntza-ekimenetara atxikitzeak lotura zuzena dute burokratizazioarekin. Hainbat ikastetxek utzi dituzte alde batera berrikuntza-prozesuak, ezin dietelako aurre egin berekin dakartzaten administrazio-prozesuei. Alde horretatik, ikusi dugu prestakuntza- eta berrikuntza-orduen aitortza ez dela nahikoa irakasleentzat, eta soilik abata bat da irakasle berrientzat.

Zaila da irakasleen motibazioekin bokaziozko dimentsioarekin lotutako elementuak lantzen dituzten irakasleentzako prestakuntza-proposamenak topatzea, baita hezkuntzaren dimentsio politikoarekin lotutakoak ere; beraz, eskolatik hiritartasuna eraikitzearekin edo justizia globalarekin lotutako hausnarketak proposamen horietatik kanpo gelditu ohi dira.

Erakunde-aldaketara bideratutako prozesuak (barne hartzen dituzte ikastetxeen errealitatearen dimentsio batzuei buruzko hausnarketa eta analisia, eta hainbat ikasturtetako epeak markatzen dira) aukera onak dira HGHEari buruzko prestakuntza esplizitua sartzeko, baina zaila da hura sartzen duten proposamenak aurkitzea.

Prestakuntza-proposamenen eragile sustatzaileei dagokienez, prestakuntza-proposamena diseinatzeko eskumena eta ardura duten eragileen ez dute zertan izan HGHEko prestakuntza espezifikoa; beraz, zaila da hura euren proposamenetan sartzea. Alde horretatik, irakasleen prestakuntza-zentroak zentroetako bizitza erakundeetako prestakuntza-planekin lotzen duten kate-begiak dira, eta gehienetan ez dute HGHEan espezializatutako aholkularitzarik.

Aurrekoaz gain, HGHEaren prestakuntza-proposamenak egiteko gaitasuna duten eragileek (hiritartasun globala sustatzen duten erakunde sozialak, adibidez garapenerako lankidetzako erakunde askok) ez dute prozesu horiek baldintza egokienetan garatzeko aukera ematen die erakunde-babesa (orduen aitortza, epe ertaineko prozesuen bermea, zilegitasuna hezkuntza-komunitateko eragile gisa, etab.).

Prestakuntza-orduen aitortzatik harago, beharrezkoa izango litzateke lankidetza-erakunde eta -zerbitzuak (arloan esperientzia ematen dute) hezkuntza-sistema ezagutu eta menderatzen duten irakasleen prestakuntza- eta berrikuntza-zerbitzuekin batzea.

Egungo testuingurua aintzat hartuta, ondorioztatzen da oro har 2030 Agendak eta zehazki 4.7 xedeak erreferentzia-esparru ona ematen dutela eragileen arteko ahaleginak artikulatzeko, lanean ari diren irakasleei eta ikastetxeei prestakuntza-ibilbide solidoak emateko, gai izan daitezen HGHE eguneroko hezkuntza-praktikan sartzea sustatzeko.

Bestalde, LOMLOE legea onetsi ondorengo lurralde-lana aukera ona izan daiteke HGHE irakasleen etengabeko prestakuntzaren lehentasunezko ildoetan sartzeko datozen urteetan.

# GOMENDIOAK

## Arloa: Irakasleen etengabeko prestakuntza

## 05 HGHEaren funtsezko ikuspegi eta konpetentzietan sakontzea irakasleen profesionalizazio-prozesuetan

**22.** Lehentasunez sartzea HGHEko prestakuntza-ildo espezifiko bat irakasleen prestakuntza-proposamenen urteko programen barruan. Etengabeko prestakuntzaren rola funtsezkoa da lanean ari diren irakasleen eguneratzean; beraz, HGHE eta bere ikuspegiak sartzeak hura egokitzea ahalbidetuko luke.

**23.** Funtsezkoa da irakasleei zuzendutako prestakuntza irakaskuntza-praktikara bideratzea, baita planifikazio-prozesuak babestera eta irakasle eta ikasleak konpetentzien arabera garatzera ere. HGHE, bere ikuspegien osotasunagatik eta hainbat metodologia erabiltzeagatik, lagungarria izan daiteke prozesu horiek indartzeko.

**24.** Prestakuntza-proposamenak diseinatzea irakasleek HGHEari begira dituzten esperientzia- eta ezagutza-mailen arabera, hasteko eta sakontzeko instantziak ahalbidetuz.

**25.** Ikastetxe eta irakasleek HGHEarekin lotutako esperientzia eta tresnak partekatu ahal izateko espazio eta prozesuak sustatu eta babestea, ikastetxeetan ikusten ez diren ekimenak agertzeko, beste prozesu batzuekiko sinergiak sortzeko eta elkar indartzeko.

**26.** HGHEko prestakuntza espezifikoa sustatzea administrazio publikoaren profiletan (aholkularitza irakasleen prestakuntza-zentroetan, sailetako prestakuntza- eta berrikuntza-unitateetako langile teknikoak, etab.). Horrela, HGHE zeharka sar liteke hainbat arlotan.

**27.** Aliantzak sustatzea irakasleen prestakuntza-zentroen eta hezkuntza-komunitateko gainerako eragileen artea, zentroetako bizitza eta erakundeetako prestakuntza-planen arteko kate-begiak direlako.

**28.** Osasun-larrialdiaren jatorria eta ondorioak sentsibilizatzeko, lan-ildo berriak irekitzeko eta irakasleak prestatzeko aukera bat izan daitezke, bereziki tokikoaren eta globalaren arteko loturak ulertzera eta metodologia aktiboak sustatzera bideratutakoak.

# GOMENDIOAK

## Arloa: Irakasleen etengabeko prestakuntza

## 06 HGHE sartzea hezkuntza-politikaren ezarpenean eta prozesuen kudeaketan

**29.** Epe ertaineko hezkuntza-berrikuntzako prozesuak sustatzea, HGHE sartzen laguntzeko. Prozesu horiek bideragarriak izan daitezen, hezkuntza-lanaren erritmoak errespetatu behar dituzte, eta prestakuntza-, praktika- eta ebaluazio-dinamiken alde egin behar dute.

**30.** Berrikuntza- eta indartze-prozesuak integratzea eskola-espazioaren barruan. Hezkuntza-sailak, lankidetza-unitateak eta gizarte zibileko erakundeak HGHE sustatzen duten eragileak dira, eta haien jarduketek bat egiten dute ikastetxeetan.

**31.** Irakasleei eta zuzendaritza-taldeei zuzendutako etengabeko prestakuntza-prozesuak indartzea, bereziki aukera emango dutenak oraindik HGHEan inplikatuta ez dauden irakasleengana hurbiltzeko.

**32.** Lan-ildo espezifiko bat bideratzea HGHEak LOMLOE legearen curriculum-garapenarekin duen loturara. Prozesu horretan, erakundeek laguntza eman dezakete curriculumaren eta HGHEaren ikuspegien arteko lotura ulertzeko.

# HIRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA ERALDATZAILEA IRAKASLEEN HASIERAKO PRESTAKUNTZAN

# IRAKASLEEN HASIERAKO PRESTAKUNTZAREN TESTUINGURUA

Eskolako irakaskuntza ahalbidetzen duten prestakuntza-programek hiritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailea eraikitzearen aldeko jakintza, prozedura eta jarrerak sustatzen dituzte. Unibertsitateko prestakuntzak hezkuntzako profesionalak prestatzeko erantzukizuna du, eta horiek gai izan behar dute egungo erronka sozialei erantzuteko. Beraz, unibertsitateak ikaskuntza-esperientzia sozial garrantzitsuak sustatu behar ditu, baita errealitatearekin bat datozen jakintzak eraiki ere. Alde horretatik, Hiritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen ikuspegiak gizarte bidezkoagoak eraikitzeko beharrezko jakintza, konpetentzia eta jarreren esparru bat ematen du; gainera, gizarte horietan pertsonek gaitasunak eta trebetasunak izan beharko dituzte herritar kontzienteak, aktiboak eta garapen jasangarriaren eta justizia sozialaren aldekoak izateko eta giza eskubideak betetzeko.

**Ikuspegi horiek sartzeko tresnak izateko potentziala duten irakasleen hasierako prestakuntzaren elementuak identifikatzeko xedearekin, Espainiako 9 autonomia-erkidegotako 11 unibertsitateren ikasketa-planak aztertu dira; horietatik 9 publikoak dira, eta 2 pribatuak.**

9 AUTONOMIA-ERKIDEGO

11 UNIBERTSITATEAK

9 UNIBERTSITATE PUBLIKO

2 UNIBERTSITATE PRIBATU

Horrekin batera, 14 elkarrizketa egin dira 8 autonomia-erkidegotako 10 unibertsitatetako irakasle-lagin batekin eta 7 unibertsitatetako lankidetza-unitateetako taldeetako 9 kiderekin, ulertzeko nola elikatzen den unibertsitateko ikasleen esperientzia konpetentzien garapena mahai gainean jartzen duten metodologia, proiektu eta esperientziekin, herritar kritikoak, kontzienteak eta eraldatzaileak sustatzeko.

Irakurketak mugak izan ditzake; izan ere, edukien planifikazioari buruzko informazioa ematen du, baina ez halabeharrez ikasleen esperientziari buruzkoa. Hala ere, analisiak erakusten du HGHEaren ikuspegietara bideratutako prestakuntza-espazioek badutela presentzia.

Analisia honela antolatu da:

01
IRAKASLEEN HASIERAKO PRESTAKUNTZAREN CURRICULUMA

02
IRAKASLEEN PRESTATZAILEEN IKUSPEGIA

03
UNIBERTSITATEKO IRAKASLEEN PROFILAREN EZAUGARRIAK

04
HGHEaren IKUSPEGIAK EZARTZEKO ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK

05
INGURUAREKIN LOTZEA UNIBERTSITATEKO LANKIDETZA-UNITATEEN BIDEZ



# ANALISIAREN ORIENTAZIO-GALDERAK

## 01. GALDERA

Nola sartzen dira HGHEaren ikuspegiak irakasleen hasierako prestakuntzaren curriculumean?

## 02. GALDERA

Ikasgai edo prestakuntza-esperientzia osagarriak aurreikusten dira, HGHEaren ikuspegiekin lotutako jakintza, konpetentzia eta jarrerak garatzeko?

## 03. GALDERA

Nolako “pisua” du prestakuntza horrek curriculumean? Zein eduki eta metodologia nabarmentzen dira?

## 04. GALDERA

Unibertsitateak sustatutako beste zer esperientziek osatzen dute irakasleen hasierako prestakuntza HGHEaren arloan?

# HIRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA ERALDATZAILEAREN JAKINTZA ETA KONPETENTZIAK IRAKASLEEN HASIERAKO PRESTAKUNTZAREN IKASKETA-PLANETAN

## IRAKASLEEN HASIERAKO PRESTAKUNTZAREN CURRICULUMA

Analisirako, Lehen Hezkuntzako Maisu eta Maistren Graduko eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza Masterreko programei dagozkien ikasketa-planak berrikusi dira; eskuragarri daude aztertutako 11 unibertsitateen webgune instituzionaletan[14].

Ikasketa-plan horiek osatzen dituzten ikasgaien analisi sakona egin da, irizpide hauekin bat:

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA 01 | **Izendapenari dagokionez** |
| IRIZPIDEA 02 | **Edukiei eta konpetentzien presentziari dagokienez** |
| IRIZPIDEA 03 | **Izaerari dagokionez (nahitaezkoa edo aukerakoa)** |
| IRIZPIDEA 04 | **ECTS kreditu-sistemari dagokionez** |
| IRIZPIDEA 05 | **Metodologiari dagokionez** |

14 Irakasleen hasierako prestakuntzari buruzko eranskinean (or.: 130-181) eskuragarri dago unibertsitate bakoitzari buruzko informazioa.

Analisiaren emaitza nagusiak deskribatu aurretik aintzat hartu beharreko lehen elementua kredituen eta beraz orduen pisua da: Lehen Hezkuntzako Maisu eta Maistren Graduaren eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza Masterraren artean soilik graduko programen kredituen (240 ECTS) laurdena ordezkatzen dute (60 ECTS). Horrek, adibidez, aukerako ikasgaien eskaintza handiagoa dakar graduan, eta horrek esan nahi du esparru bat dagoela HGHEaren ikuspegietan oinarritutako prestakuntzarako.

Gradu eta masterreko prestakuntzaren ikasketa-planak osatzen dituzten ikasgaiak sailkatu eta aztertu ondoren, arlo tematikoak zehaztu ziren gaiak ikasketa-planetan taldekatzeko.

**Jarraian, ikasketa-planen analisiaren emaitza gisa lortutako arlo tematikoak aurkezten dira. Arloak goitik behera daude ordenatuta, maiztasunaren eta aztertutako nahitaezko eta aukerako ikasgaien garrantziaren arabera:**

| NAHITAEZKOAK | AUKERAKOAK[15] |
|---|---|
| 1. Kulturartekotasuna | 1. HGHE metodologia eraldatzaileetatik |
| 2. Balioetan oinarritutako hezkuntzaren hainbat arlo | 2. Kulturartekotasuna |
| 3. HGHE diziplina-arloetatik | 3. Ingurumen-jasangarritasuna eta kontsumo arduratsua |
| 4. Ingurumen-jasangarritasuna eta kontsumo arduratsua | 4. HGHE diziplina-arloetatik |
| 5. Genero-ikuspegia | 5. Balioetan oinarritutako hezkuntzaren hainbat arlo |
| 6. Justizia globala, giza garapena | 6. Justizia globala, giza garapena |
| | 7. Genero-ikuspegia |

15 Aukerako ikasgaietan, HGHE metodologia eraldatzaileetatik, kulturartekotasuna, ingurumen-jasangarritasuna eta kontsumo arduratsua eta HGHE diziplina-arloetatik maiztasun berarekin agertzen dira.

Nahitaezko eta aukerako ikasgaietan maizen agertzen den arlo tematikoetako bat kulturartekotasuna da. Osagai hori azpimarratzen duten unibertsitateetan, metodologia aktiboen garapena ere argi identifikatzen da ikasteko estrategia gisa.

Bestalde, balioetan oinarritutako prestakuntza azpimarratzen da unibertsitate publiko eta pribatuetan. Horrek lotura izan dezake indarreko eskola-curriculumaren ikuspegiekin, eta, beraz, irakasleen prestakuntza eta (etorkizuneko) curriculum-ezarpena lerrokatzearekin.

Ingurumen-jasangarritasuna eta kontsumo arduratsua da hasierako prestakuntza presentzia handiena duen HGHEaren beste arloetako bat, nahitaezko eta aukerako ikasgaiak elkartzen badira.

Beste arlo tematiko batzuei begira ahultasunagatik nabarmentzen den elementu bat genero-ikuspegiarena da; izan ere, azken-aurreko tokian dago nahitaezko ikasgaietan, eta azkenekoan aukerakoetan. Horrez gain, ez da identifikatzen ikuspegiarekin lotura duen eta ikasketa-programekiko osagarria den programa, metodologia edo ekimenik; beraz, interesgarria izango da gehiago sakontzea unibertsitateek ikuspegi horri begira dituzten prestakuntza-proposamenen konplexutasunean.

Aurrekoaren harira, justizia globalaren eta giza garapenaren arloak ere presentzia txikia du nahitaezko eta aukerako ikasgaietan, beste ikuspegi tematiko batzuen aldean. Edonola ere, unibertsitateek gaiaren aldetik ikuspegi horrekin lotura duten jarduera, programa eta proiektuak eskaintzen dituzte.

Ez da identifikatu giza eskubideen ikuspegia esplizituki jorratzen duen edukirik; hala ere, hainbat unibertsitatek metodologia duala sartu dute euren ikaskuntza-prozesuetan. Metodologia horrek baloratu eta aintzat hartzen du ikasleen profilen aniztasuna. Mota horretako metodologiek aukera ematen dute eskola inklusiborako bidean aurrera egiteko, eta hori bat dator giza eskubideen ikuspegiarekin, berdintasunaren eta bazterketarik ezaren alde egiten baitu.

Halaber, aukerako ikasgaietan metodologia eraldatzaileen erabilerara bideratutako ekimenak jasotzen dira, eta, ikerketa honen beste atal batzuetan adierazi dugun moduan, lau zeharkakoekin lotutako hainbat balio sustatzen dituzte, besteak beste hauek: enpatia, bestearen aitortza aniztasunean, elkarrekiko babesa, pentsamendu kritikoa, lehiakortasunik eza, ekitatea, erantzukizun herritarra, etab. Hala ere, hutsune bat hauteman da balio horiek esplizitu egiterakoan eta HGHEaren partetzat jotzerakoan.

# IRAKASLEEN PRESTATZAILEEN IKUSPEGIA

**Irakasleen hasierako prestakuntzaren ikasketa-planetan HGHEaren ikuspegien presentzia eta garapenean sakontzeko xedearekin, gai horietara bideratutako ikasgaiekin lotutako unibertsitateko irakasleak elkarrizketatu dira. Lagina 12 emakumek eta 10 gizonek osatu zuten. 14 elkarrizketa egin ziren 8 autonomia-erkidegotako 10 unibertsitatetan.**

| 22 PERTSONA | 14 ELKARRIZKETA | 10 UNIBERTSITATEAK | 8 AUTONOMIA-ERKIDEGO |
|---|---|---|---|

**Lagineko irakasleak honako ezagutza-arlo hauetakoak dira:**

- Zientzia esperimentalen didaktika
- Eskolako didaktika eta antolakuntza
- Adierazpen musikalaren didaktika
- Gorputzaren adierazpenaren didaktika
- Matematiken didaktika
- Hizkuntza eta literaturaren didaktika
- Hezkuntzaren teoria eta historia
- Soziologia
- Ekologia
- Psikologia soziala
- Filosofia morala.

# Unibertsitateko irakasleen profilaren ezaugarriak

Elkarrizketetan zehar azpimarratu zen irakasleen esperientzia dutela arlo sozialean, zehazki nazioarteko lankidetzan eta mugimendu edo erakunde sozialetako partaide gisa. Esperientzia horiek hainbat gaietan sentsibilizatzen lagundu diete, eta euren klaseetan HGHEarekin lotutako gaiak garatzea erabaki dute. Alde horretatik, konpromiso sozial eta pertsonalaren emaitza da genero-berdintasuna, justizia soziala, ingurumen-jasangarritasuna eta kulturartekotasuna bezalako gaiak lantzea ikasgaiaren esparruan.

HGHEarekiko lotura ez da mugatzen unibertsitateko irakaskuntzara, baizik eta baita ikastetxeetako irakasleekiko lankidetzara, etengabeko prestakuntza-prozesuetara, eraldaketa eta berrikuntza sozialeko proiektuetara, HGHEarekiko zeharkako gaiekin lotutako programen ebaluaziora, dibulgazio-jardueretara eta unibertsitatera ere.

# HGHEaren ikuspegiak ezartzeko estrategia metodologikoak

Oro har, elkarrizketatutako irakasleek adierazi dute HGHEaren ikuspegiak zeharka landu daitezkeela ikasgaien edukiaren bidez. Horren arabera, ikasgelan erabilitako diskurtsoak sentsibilizazio-tonua du. Hala ere, baliteke sentsibilizatzeko bide horrek ez izatea aurreikusitako eraginak ikasleengan. Horregatik, elkarrizketatutako pertsonek azpimarratu dute estrategia zehatz batzuek HGHEarekin lotutako konpetentziak sustatzen dituztela.

Erabilitako estrategien artean hauek nabarmentzen dira: ikaskuntza dialogikoa, galderaren pedagogia, kasu eta testu-liburuen analisia edo azterketa, irakurketa kritikoa, tertulia dialogikoak, problematizazioa, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU), co-teaching, lankidetza-lana, Ikaskuntza Komunitateak, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza, Soundpainting, eta Ikaskuntza eta Zerbitzua.

Hala ere, mota horretako estrategiak anekdotikoak dira ez badira lotzen ikaskuntza-prozesu osoarekin. Horretarako, funtsezkoak dira esperientzia praktikoak, bizitako esperientzia eta errealitatea ezagutzea. Adibidez:

- Universidad de Málaga, Universidad de Valladolid eta Universidad Autónoma de Madrid unibertsitateetako irakasleen arabera, funtsezkoa da lantzea ikastetxeen, irakasle-sareen eta unibertsitatearen arteko zubiak eta lankidetzak finkatzen dituzten hezkuntza-testuinguru errealak.

- Universitat Autònoma de Barcelona[16] eta Mondragon Unibersitatea[17]unibertsitateetako irakasleen arabera, APB (Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza) metodoak barne hartzen ditu komunitatearen barruko esperientziak, hainbat ikasgairekin lankidetzan[18].

Irakasleen esperientziek adierazten dute HGHE integra daitekeela hainbat modutan. Aintzat hartu behar da prozesuak ez direla erraz egokitzen planifikazio tradizionaletara, eta ikaskuntza testuinguru barruan dago, hau da, lotura du errealitate eta erronka sozialekin. Lan egiteko modu hori hobeto sartzen da konpetentzietan oinarritutako hezkuntza-garapenean, ikasketa-planak osatzen dituzten ikasgaiek konfiguratutako konpartimentu estankoetatik harago baitoa.

Ikerketak esperientzia-metodologien erabileran (adibidez, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza, eta, bereziki, Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioa), aurkezten dituen hezkuntza-jardunbide egokiak eta errealitate lokal eta globalarekiko kontaktua funtsezkoa dira analisi kritikoaren prozesu eta tresnen alde egiteko, prestakuntza teorikoari uko egin gabe. Horrez gain, lan egiteko beharrezko konpetentzia eta ezagutzak lortzeko ere balio dute. Ikasgaietan lortutako ezagutzak esperientzia errealetan aplikatzea lagungarria da ikaskuntzak finkatzeko.

HGHE esperientziak aplikatzen ari diren unibertsitateko irakasleen arabera, irakasleen hasierako prestakuntzan, beharrezkoa da ikasleak honako hauek egitera behartuko dituzten esperientziak sortzea: haien ingurukoa ulertzera, konprometitzera eta ekintza-mekanismoak aktibatzera, hezkuntzako profesional gisa eta besteekiko eta inguruarekiko erantzunkide gisa erabakiak hartu ahal izateko ekintza-mekanismoak aktibatzera.

---

16Ikusi 01 eranskina (or.: 131).

17Ikusi 06 eranskina (or.: 154).

18Ikuspegi horretatik, merezi du Universidad Autónoma de Barcelona (UAB) unibertsitatearen Fundación Autónoma Solidaria (FS) erakundearen CROMA 2.0 programa azpimarratzeak: esperientzia horrek harremanetan jartzen ditu unibertsitateko ikasleak zaurgarritasun-egoeran dauden eta eskola-porrotaren arrisku handiagoa duten Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleekin. Esperientzia horren helburua da unibertsitateko ikasleen artean ikerketarekiko interesa piztea eta Lehen Hezkuntzako ikasleen eskolako emaitzak hobetzea. Uste dugu mota horretako proposamenak bikainak direla giza eskubideen ikuspegitik lantzeko, unibertsitateko ikasleak sartzen baititu artatzen dituzten haurren zaurgarritasun-egoeran; horrez gain, aukera ematen diete hurbilagotik ezagutzeko haiek egunero bizi dituzten arazo eta egoerak, eta herritar aktibo gisa ahalduntzen ditu. Halaber, zaurgarritasun-egoeran dauden ikasleek laguntza jasotzen dute euren emaitza akademikoak hobetzeko eta aukera-berdintasunaren bidean aurrera egiteko, bizi duten bazterketa-egoera gorabehera.

Edonola ere, aukerak urriak dira. Oro har, Bigarren Hezkuntzako masterretan, ekimenak triangulatzeko zailtasunak daude fakultateen, GGKE-en, ikastetxeen eta tokiko komunitatearen artean. Aliantza horiek aukera emango lukete errealitatean txertatutako proiektuak eta ikasgaien arteko esperientziak lantzeko, analisirako espazio komun bat sortzeko eta prestakuntza modu integralean jorratzeko xedearekin. Irakasleek iradokitzen dute GGKE-en esperientziak modu integratuan lan egiteko ardatz motibatzaileak izan daitezkeela.

Alde horretatik, ikerketak erakusten du kanpoko eragileekin eta hezkuntzan adituak diren GGKE-ekin aliantzak egin dituzten irakasleek edukien ikuspegi berriak landu dituztela, zurruntasun akademikoa hautsiz eta jarduera praktiko handiagoa ahalbidetuz. Ikasgeletako espazio fisikoa eta ezagutzena gainditzeko beharra HGHEarekin lotutako esperientzien analisia etengabe errepikatzen den konstante bat da.

HGHE ikasketa-planetan, ikasgaietan eta gaitasunetan sartu eta ezartzea sistematizatzearen beharra ere azpimarratzen dute, baita HGHEaren lan-esperientziak "erakundetu" eta sistematizatzearen beharra ere, horiek balorizatzeko, irakasleak gehiago inplikatzeko eta bermatzeko hasierako prestakuntzak hezkuntza eraldatzailea sustatzeko gaitasunak ematen dituela.

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza Masterrari dagokionez, ekintza-marjina ikasketa-planaren orduen proportzio berean murrizten da. Ikasgelatik kanpoko lankidetzak murrizten dira, nahiz eta klaseetan hainbat profil profesionalen esperientzien aurkezpenarekin ordezkatzen saiatzen diren.



# INGURUAREKIN LOTZEA UNIBERTSITATEKO LANKIDETZA-UNITATEEN BIDEZ

Unibertsitateko esperientzia ez dute osatzen soilik curriculum espezifiko baten prestakuntza-esperientziek. Horrez gain, barne hartzen ditu inguruarekiko lotura-instantziak, eta, nahiz eta arautuak ez izan, unibertsitateen prestakuntza-proposamenaren parte dira. Adibidez, konpromiso sozialarekin eta elkartasunarekin lotutako jarduerak. Aztertutako kasu batzuetan, ekimen horiek Lankidetza Unitateetatik etorri dira, eta horregatik dira hain garrantzitsuak analisian.

Analisiaren dimentsio hori sartzeko, 7 unibertsitatetako lankidetza-unitate administratiboekin lotutako 9 profesional (7 emakume eta 2 gizon) elkarrizketatu dira euren prestakuntzen eraginagatik; laginean jasotako 2 unibertsitate pribatuek ez dute horrelako zerbitzurik.

Elkarrizketetan errepikatu zen ideia bat zera izan zen, HGHEarekin lotutako ikuspegien erreferentzia-esparruak lotura estua duela lankidetzarekin eta GGKE-ekin, eta ez horrenbeste irakasleen hasierako prestakuntzarekin.

Elkarrizketetan, lankidetza-unitateetako taldeek azpimarratzen dute abian jarri dituztela HGHEarekin lotutako gaiei buruzko ikastaroak, jardunaldiak eta mintegiak, eta, kasu askotan, ehun sozialeko erakundeekin lankidetzan. Proposamen horien barruan sentsibilizazio- eta komunikazio-ekimenak jasotzen dira, adibidez lehiaketak eta sariak. Bulego bakoitzaren eskaintza askotarikoa da, eta ikasleei, irakasle eta ikerlariei, administrazio eta zerbitzuetako langileei eta batzuetan kanpoko komunitateari zuzendutako ekimenak jasotzen ditu. Unibertsitate batzuek finantzaketa-ildo propioak dituzte jarduerak egiteko[19].

Unitateen funtsezko lan bat irakasle eta erakundeen arteko bitartekaritza da, baita unibertsitatea inguruarekin lotzea ere. Bulego batzuek abian jartzen dituzte praktiken eta boluntariotzaren programa propioak, eta, horrekin batera, prestakuntza, adibidez ikaskuntza eta zerbitzura bideratutakoa.

[19] Hori da Universitat de València unibertsitatearen Lankidetza eta Garapen Jasangarriaren UNESCO Katedraren kasua, Garapenerako Hezkuntzarekin, Hiritartasun Globalarekin eta Sentsibilizazioarekin lotutako ekintzetarako laguntzak sustatzen baititu.

